

22-27. orriak

NAZIOARTEAN SARITUTAKO
AITOR GARMENDIAREN
ARGAZKI-ERREPORTAJEA

Espainiako Estatuko txerri-industrian infiltratuta

#2.684 | 2020 / 05 / 03 | 3,90 €



**Errusiako hirietako
baratzeak mundu
mailan eredu**

10 | NET HURBIL



**"Hau botere kontua
da eta boterea
eurek daukate"**

28 | AINHOA ETXAIDE



**Sarraskia Euskal
Herriko zaharren
egoitzetan**

32 | COVID-19

AZOKA 2020



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIA

AZALEKO ARGAZKIA:
AITOR GARMENDIA / TRAS LOS MUROS

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | SONIA GONZALEZ
- 19 | IÑAKI BARCENA
- 19 | CASTILLO SUÁREZ
- 20 | AINGERU EPALTZA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
INÉS DUNIS ALDAVE
- 54 | BERANDUEGI



HODEI TORRES

28 | AINHOA ETXAIDE
LAB sindikatuko militantea elkarriketatu du Zigor Oleagak. Egungo egoeraz eta arriskuez mintzatu da, baita borroka aukere ere.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Errusia non hirietako familien erdiak baino gehiagok bere baratzea lantzen baitu

Pello Zubiria Kamino

12 | ARITZ IBAÑEZ

“Euskal dantza garaikidea eta urbanoa ere bada”

Reyes Ilintxeta

22 | ARGAZKI ERREPORTAJEA

Europako txerri-ekoizle nagusiaren errailetan

Aitor Garmendia / Tras los muros

32 | ZAHAR EGOITZAK OSASUN KRISIAN

Birusak ipurdi bistan jarri du zaintza sistema

Onintza Irureta Azkune

36 | JURGEN MEISEL HIZKUNTZALARIA

“Estandarra ez dira elebakarrak”

Miel A. Elustondo

44 | IOLATZ ZUGASTI MUSIKARIA

“Unibertsaltasun gureari uko egitea bezala ulertzen da”

Mikel Asumendi

44 | KULTURA

Kulturgintza antsietatearen garaian

Gorka Bereziartua

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maria Ortega, Mikel Asumendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandiandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administratzailea:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

KALERA, KALERA!

Aldi baterako espetxe bihurtu digute etxea. Haur eta nerabeentzat 43 gau eta egun, lau pareta artean. Munduan ia parekorik ez duen neurri gogorra, bere burua "ezkertiarizat" aurkezten duen gobernu baten eskutik. Mende honetan izan dugun froga gordinena, erakusteko gizarteko sektorerik kalteberena —edadetuekin batera, besteak beste— zergatik den bigarren mailako erabaki garrantzitsuenetan. Pertsona objektu bihurtuta, behar eta eskubiderik gabe, helduzentrismoaren periferian. Behin onartu dugu, baita askok justifikatu ere, ea hurrengoan (*spoiler*: hau ez da azken pandemia izango) ez ditugun gutxiengoak atzera ere gutxiesten "denon" hobe beharraren izenean.

 **DANI BLANCO**  **AXIER LOPEZ**





MOTZEAN

Espetxeetan koronabirusari aurre egiteko neurriak hartzea exijitu die hainbat elkartek Espainiako Gobernuari eta Espetxe Erakundeei. Besteak beste, 70 urtetik gora dituzten, eta haurdun edo gaixo dauden presoak askatzea eskatu dute.

Banaketa enpresetarako lan egiten duten rider-ek nazioarteko lanuztea deitu zuten apirilaren 22an. beren babesgabetasuna eta esplotazioa salatu nahi izan dituzte, eta lan baldintza hobeak exijitu.

PSOE Mozal Legea gogor kritikatzetik berau indar osoz aplikatzera pasa da konfinamendua betearazteko, berez oso lausoa den legearen interpretazio are lausoagoa eginez: Gobernuaren erabakiak ez betetzea "autoritateari desobeditzea" dela interpretatzen ari dira.

Europako tenperatura erregistratzen denetik 2019a izan da inoizko altuenak bildu dituen urtea; urterik beroenen zerrendan atzetik doaz 2014, 2015 eta 2018.

Azkoitian hondakin planta egiteko prozesua eten du alkateak, momentuz. ahobetekotasunik gabe ez dela hondakin plantarik egingo gaineratu du.



ZUMAIAKO LIBRE

Herriko tabernak konfiskatzen hasi dira

 AXIER LOPEZ

Herritarren konfinamendu bete-betean, Espainiako Auzitegi Nazionala Herriko taberna eta elkarten epaia exekutatzen hasi dela salatu du Sortuk. Zehazki, taberna eta elkarten kontu korronteak enbargatzeko agindua eman du auzitegiak.

2015ean Espainiako Auzitegi Gorenak 35/02 auziko epaia ezarri zuen, ezker abertzalearekin lotura duten 107 taberna eta kultur elkarte itxi eta konfiskatzeko Auzitegi Nazionalak emandako agindua berretsiz. Ordutik ez da mugimendu askorik izan, baina, Sortuk informatu duenez, azken egunotan taberna eta elkarte horietako batzuek jakinarazpenak jaso dituzte epaia betetzera doazela aditzera ematen dutenak.

Epaia exekuzioa, beraz, kontu korronteak enbargatzen hasi dute eta Sortuko kide batek adierazi digunez, "herri batzuetan epaiarekin zerikusirik ez zuten kontu korronteak ere ikutu dituzte, nahastuta edo". Sortuk salatu duenez, "1936ko gerraz geroztik, lapurreta ekonomiko eta politikorik handiena" izango da. Koronabirusa dela-eta Espainiako Gobernuak gerra hotsak erabiltzen ari dela dio alderdi independentistak, "Guardia Zibil eta militarrek osasun krisiaren aurkako propaganda-ren lehen lerroan jarrita, baina iraganekoa behar lukeen epai honek gogora dakarkigu Espainiako Erreinuaren autoritarismoa ez dela berria zoritxarrez".

"DENA DA ETA"RI LOTUTAKO ENEGARREN EPAIA

785 orriko epaian, Herriko tabernak eta elkarteak konfiskatzeko agintzearekin batera, epaileak aurrez eskatutako hiru urteko kartzela zigorra murriztu zieten epaiketa hamarkada bat baino gehiago luzatu zelako, eta urte bat eta 10 hilabetera zigortu dute ezker abertzaleko Joseba Permach, Rufi Etxeberría, Karmelo Landa eta Juan Kruz Aldasororekin batera. Floren Aoiz, Antton Morcillo eta Jon Gorrotxategiri urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zieten. Azkenik, beste hamabi lagun urtebete eta hiru hilabetera zigortu zituzten Herriko tabernen zatiagatik. Ez zuen inork kartzelara joan beharrik izan. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Danubio



ARITZ GALARRAGA

Itxialdia arintzeko edo, irakurketa klub bat abiatu dugu, birtuala. Irakurle kualifikatuak dira gainerako kideak, ze zortea, ea zerbait itsasten zaigun. Hasteko, aspalditik pendiente neukan liburu bat aukeratu dugu, Claudio Magris, *Danubio* –eta gomendio bat, ez da libururik egokiena kluba oloztatzeko: hartu irakurketa samurrago bat, 150 orrialde, letra lodi, gurean ere gailentzen ari den idazkera onbera, murtzikatu, gatzik gabea; martxa hartzeko, pasa gaitezke gero gauza totxoagoetara-. Ibili gara beraz Danubio ibaian beheara –eta gora, eta berriz beheara-, Europa eta Asia lotzen, Alemania eta Grezia, Mitteleuropa sortzen eta besarkatzen duen ibaian. Ez esan ez denik iradokikorra. Erudizioz beteriko orrialdeak, entziklopedikoak, ito egiten zaituztenak igerian asmatzen duzun arte. Baina gonbidapen dira beti, lurra korritzera, zerumuga konstitatzera, gudan bizi den –nahiz batzuen kasuan lozorroan dirudien– abenturazalea libratzera.

Itxialdi egun hauek, aldiz, justu kontrakoa egiteko gonbidapen dira, ze erremedio: lau paretan arteko estuasuna praktikatzeko, estatismoa, etxeko epikotasuna. Eta, ados, baldintza material oso ezberdinekin, baina ez ote dugun bizi guztiok ere gutxi-asko gauza antzekoa. Etxetiar, baina masa bilakatu gara, are gehiago. Kyselak etorri zait gogora, Danubioan dabiltzan bidaiari, morroi, saltzaile, txaluparien hutsaltasunaz kexu den funtzionarioa. Uste du bera dela sentimendu nobleak dituen bakarra, egiazkoa dena hautemateko kapaz den bakarra. Besteak dira gizerdi, masa inozo eta itsusia. Jakin gabe Homero bera ere tarteka jaitsi behar izaten zela Olinpo menditik, izpirituaren hai-zeak aliritzira jotzen duela. Etxe barruko abenturak, balkoi arteko sozializazioak, supermekatuko espedizioek –maskara eta eskularru– berdindu egin gaituzte, are gehiago. Horri irri egitea geratzen zaigu, noski lehenik norbere buruari. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“IRAKASLEEK NAHIKOA INFORMAZIOA BADUTE IKASLEEN BILAKAERA EBALUATZEKO”

CRISTINA URIARTE, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILBURUA

EAE, ikasturte amaieran gaingitu beharreko edukiak zein diren erabakitzea eta ebaluazio modua zehaztea ikastetxe bakoitzaren esku utzi du Jaurlaritzak. Azken kalifikaziorako, dena den, lehenengo bi ebaluazioak hartuko dira oinarri eta Hezkuntza Ikuskaritzak onartu beharko du ikasleren batek errepikatzea. “Ikastetxe bakoitzean, dagokion irakasle-taldeak adieraziko du zein diren lorpen-adierazle berriak, azken ebaluazioan kontuan hartuko direnak”. Ikasleen arteko arrakalarentzat Jaurlaritzak ez duela neurririk planteatu, sindikatuen kritika nagusia. **2020/04/23**



Pandemiak desoreka agerian utzi du



JUAN MARI ARREGI

Ez da egia pandemiak herritar guztiei berdin eragiten diela eta ez duela kolore politiko edo sozialik. Hondamendiek bezala koronabirusak ez die berdin eragiten behartsu eta aberatsei, plantillako langileei edo prekarioan dau-denei, bertakoei edo etorkinei.

Ez daukagu daturik pandemiak sektoreka Euskal Herrian duen eragina konparatzeko. Baina Madrilgo datuak baditugu, Espainiako Estatuko pandemiaren epizentroa izan dena. 100.000 biztanleko kutsaturiko pertsonak erakusten dute koronabirusa gizentzen ari dela sektore ahulenetan. Madrilgo erki-degoan errentarik handiena duen udal-erriak, Pozuelo de Alarconek, 595 kasu ditu, pobreenak, Villa del Pradok, 1.212.

Desberdintasuna konfinamenduarekin ere geratu da agerian. Ez da gauza bera 100 metro koadroko pisuan edo 25-40koan bizitzea. Ez da gauza bera ABEEE bat jasatea, edo hori ere ez, prekarioan lan egiteagatik. Ez da gauza bera –egoera horretan batez ere– bertakoa izatea edo etorkina izatea eta *patera* pisuetan bizitzea. Eta pandemia honen irteera ez da berdina izango denentzat.

Desberdintasunak hor jarraitzen baitu, sistema kapitalistaren ondorioz. Hondamendiaren erdian, enpresa handiek –batez ere bankuek eta elektrikoek– milioi askoko etekinak izan dituzte eta dibidenduak banatuko dituzte. Sánchez Galan Iberdrolako presidentek jakinarazi du 2019an 3.406 milioi euro irabazi zituztela. Eta horrek sortzen duen ospe txarrari aurre egin nahi dio osasun materiala erosteko limosna txikiak emanez.

Bitartean, milaka enplegu desagertuko dira; autonomoek eta negozio txikiak pertsiana jaitsi beharko dute. Eta bankuek eta enpresa multinazionalak irabaziak pilatzen jarraituko dute ahulenen kontura, baldin eta ez badugu eredu anker eta injustu horri aurre egiteko horma handi bat eraikitzen. ●



Ardura

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Zalaparta eragin zuten Espainiako Gobernuak haurren konfinamendua leuntzeko onartutako lehen neurriek. 14 urtetik beherakoei adin nagusiko batekin etxetik irtetetzea ahalbidetzen zitzairen, bai, baina kalera ordeztu supermerkatura, banketxera eta farmaziara joateko. Ordu gutxiren buruan atzera egin zuen gobernuak, eta haur eta nerabeei kalera ateratzen utziko zitzaizela aurreratu. Orduantxe agertu zen, sare sozialetan baretzen hasitako eztabaidaren erdian, nire arretera deitu zuen txioa; “eskerrak!” zioen lasaitua hartutako ama batek, aurreneko neurriak desobeditzeko hautua egin zuela zeukala adieraziz.

Haize ufada freskoa bailitza heldu zitzaizkan mezu hura. Antzeko sentipena eragin zidan egun gutxi aurretik Italiatik heldutako berriak: hileta-errituak egiteko debekua hautsiz, hainbat lagunek Erromako kaleak hartu zituzten beren adiskide eta ibilbide luzeko militante Salvatore Ricciardi agurtzeko. Bateko mezua zein besteko berria, ziega –erosoa, baina ziega– itxura hartzen hasia den lau pareta artea egurastera zetozen. Epe motzean gainera. Baliteke mortua dirudien etxeko leihoak bestalde horretan desobedientzia korronteak sortzen ari izatea.

“Illogikoa eta irrazionala den arau bat errespetatu behar izatea, obedientzia eta mendetasun ariketa nabarmenena da”, zioten Ricciardiren hiletaren harira idatzitako artikularen autoreek. Nago, Paz Francesen hitzetan oinarrituz, beldurraren maneia dela otzantasun hori elikatzen duena, jendaurrean arduragabetzat agertzea izanik izu horren adierazpide gorena. Kontrol sozialak ez baitu zertan izan goitik beherakoa, balkoietako polizien fenomenoak argi utzi bezala. Itxura guztien arabera, arduratsu agertzeaz arduratuta, arau eta jokabide irrazionalak jasaten –eta horiek arrazional bilakatzen, kasurik muturrekoenetan– ari gara. Zehaztuta eman zaigun arduraren esangura onartu izanaren ajeak. Alabaina, ez dirudi atzera bueltarik gabeko puntuan gaudenik, gero eta ugariagoak baitira zentzurik eta gizatasunik ez duten arauak men egin gabe ere arduraz jokatu –eta duinago bizi, zein hil– daitekeela adieraztera datozen keinuak; eta horiek, testuingurua duguna izanik, desobedientzia forman ematen dira eta emango dira ezinbestean.

Bizitza biziraupenera mugatu duen errealitate honetan, bizi-irrikak, nonbait gordetzekotan, gizatasuna eutsi asmo duten desobedientzia keinu horien atzean behar du egon. Ez ditzagun arduragabekeriatzat jo, ez ditzagun kriminalizatu; ez behintzat kalea zapaltzen uzten digutenean bizitza bizirik iraute hutsera murrizturik ikusi nahi baldin ez badugu. Halakorik gerta dadin ekiditea ere bada ardura kontua. ●



JOSE LUIS ZUMETA MARGOLARIA HIL DA

USURBIL. Jose Luis Zumeta Etxeberria margolari usurbildarra hilik aurkitu zuten etxean apirilaren 23an, 81 urte zituela. GAUR taldeko kidea, Ez Dok Amairun ibilia, Mikel Laboaren azalen egilea, hainbat afixa ezagunena, Artzeren xoriak marraztu zituena... Ezin da ulertu 60ko hamarkadatik honako euskal kulturaren iruditeria bere lana aintzat hartu gabe. ARGIA astekariak 90. urteurrena ospatu zuenean, Zumetaren artelana izan genuen astekariko azala. Goiko argazkia 2008koa da, ARGIAk egindako elkarrizketa batean erabilia.

EUSKARA HAUR ESKOLETAN

%36



dira Iruñeko haur eskoletan euskarazko eredua eskatzen duten familiak. Iruñeko Udalak egindako inkestaren emaitzak eskatzen hilabeteak zeramatzan oposizioak, eta Maya alkateak pandemia egoeraren erdian plazaratu ditu. Eskaera %36koa izan arren, Navarra Sumak iragarri dituen planetan euskarazko plazen eskaintza %14ra jaistea da asmoa.

Eraginkortasunik gabeko maskarak eta akasdunak

ARGIA

ERAGINKORRAK EZ DIREN 13.000

Eraginkorrek ez diren maskarekin aritu dira Osakidetzako hainbat langile, Bizkaiko eta Gipuzkoako ospitaletan. Eusko Jaurlaritzaren arabera, banatutako eraginkortasunik gabeko maskarak 13.000 inguru dira, eta erretiratu egin dituzte. Maskara horiek erabili ahal izan dituzten 2.274 langileri egin diete koronabirusaren froga, eta 64k positibo eman dute.

AKATSA DUTEN 300.000

Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak udalei doan banaturiko 300.000 maskaretan akatsak agertu dira – oihalaria eusten dioten gomak askatuta dira edo hausten dira– eta erretiratu egin behar izan dituzte. Berriak banatuko dituzte.

600.000 MASKARA IPARRALDEAN

Euskal Hirigune Elkargoak 600.000 maskara banatu nahi ditu datozen asteetan doan; hau da, Ipar Euskal Herriko biztanle bakoitzeko bi maskara. Frantziako Gobernuak iragarri du maiatzaren 11n hasiko dela konfinamendutik ateratzeko fasea eta ordurako banatu nahi dituzte maskarak.

GEHIENEZKO PREZIOA

Maskara ekoizleak prezioa igotzen ari zirela-eta, muga jarri du Espainiako Gobernuak: maskaren gehienezko prezioa 0,96 euro da Espainiako Estatuan.



HAUTESKUNDEAK EAE-N. Joan den apirilaren 5erako aurreikusita zeuden Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak uztailan egiteko aukera dagoela adierazi du Iñigo Urkullu lehendakariak. Pandemia kontrolaturik izan arte hauteskunderik ez dela egin- go erantzun du Espainiako Gobernuak.



ADINEKOAK. Bat Etorri Gipuzkoako Pentsiodunen Elkarteak itxialdia aintzean pertsona nagusiak ez diskriminatzea eskatu du. Elkar- teak dio herrialde batzuetan zaharren zir- kulazio librea debekatzea proposatu dutela eta gogoratu du adinaren arabera neurriak ezartzea giza eskubideen aurkakoa dela.



NORBERE HITZKUNTZAN. Osasun krisian ere pazienteak bere hizkuntzan artatzea eskatu du nazioarteko hainbat eragilek. Eskaera Osasunaren Mundu Erakundeari eta tokian tokiko gobernuei egin diete, gaixoaren hizkuntza errespetatzeak be- rebiziko garrantzia duela nabarmenduz.

ERRUSIA NON HIRIETAKO FAMILIEN ERDIAK BAINO GEHIAGOK BERE BARATZEA LANTZEN BAITU

Hiri handien inguruetan kaletarrek familiako kontsumoa bermatzeko ortuak orokortzearen adibiderik baldin bada munduan, Errusia da hori. Herrialdearen laborantza ekoizpena nabarmen indartzeaz gain, errusiarrei erresilientzia ahalmen handia ematen die edozein krisiren aurrean, eta historian behin eta berriro frogatua dute. COVID-19 pandemiak atzetik aspaldiko krisi ekonomikorik sakonena zabaldu duenean, hemengo agintariek ere ezagutu beharko lituzkete.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Frantsesezko *Resilience Alimentaire* aldizkarian, Arthur Grimonpontek azaldu du Mendebaldeko jendeoi ezezaguna zaigun berezitasun errusiarra “*Les collectifs de jardins russes: une organisation résiliente*” artikulua ongi dokumentatua. ARGIA hiri-baratzeen munduko esperientziak hainbat alditan aurkeztu dizkiegu irakurleei: Kubako organoponikoak, gerra handien garaiko *Dig for Victory* eta *Victory Garden* kanpainak AEB eta Erresuma Batuan, Siriako hiri setiatuetako terrazetako mini-ortuak... Errusiarik, ordea, ez genuen aipatu eta ez merezi ez duelako.

Grimonpontek erakutsi digunez, txunditzeak dira hainbat hiri errusiarrei sateliteetatik ateratako argazkiak, zeintzuetan oso garbi ikusten baitira periferietako auzoetan hormigoizko eraikinen aldamenean dauden zientoka eta baita milaka baratzez –tamaina eta egitura berdintsuko ortu– osatutako mosaiko handiak.

Errusiako Baratzezainen Elkartasunaren kalkuluetan, Errusiako 100 milioi biztanle hiritartuetatik 60 milioi bere elikagaien parte bat norbere baratzean ekoizten dituzte. Mosku eta San Petersburgoko biztanleen erdia da ortua daukan eremu baten jabe. Portzentaia Kazan probintzian populazioaren %80a iristen omen da.

Baratzezain amateurroi deitzen zaie *datxniki*, datxadunak. Alegia, datxa baten jabe izatea ez dela aberatsenen edo agintearen pribilegioak zurrupatzan di-

tuztenen luxu bat, sarritan Mendebaldean ulertu izan dugun gisan. Zenbat eta aberatsago edo boteretsuago, hainbat eta txalet ederragoz hornitu du minoria batek bere lur-saila, prefosta. Baina jende gehienentzat datxa da 600 metro karratuko lurra, tresnak gordetzeko eta asteburuak aire librean pasatzeko adina daukan etxetxoarekin. Ehun urteko historia kontu dezakete datxek.

XX. mende hasieran Errusia hiritartze eta industrializazio prozesu oso bizkor batean murgildu zen. 1914ko gerraren eta 1917ko iraultzatik aurrera sobietek ezarritako kolektibizazio zentralizatuaren ondorioek bultzatuta zituzten errusiar kaletartu berriak nork bere elikagaiak ahalik eta hurbilen ekoiztera. Produktzio tresna guztien monopolioa Estatuak zentralizatu zuenez, aginte berriak ez zituen begi onez ikusten soluzio indibidualok baina, ohartuta goseteei aurre egiteko zein eraginkorrak izan zitezkeen, enpresa estatalak berak hasi ziren lur eremu zabalak eskuratu eta eskaintzen beren langileei, puska berdinetan antolatuta.

Gaur guk *baratze parke* deituko genituzkeenok Estatuarenak ziren 2006a arte eta Sobiet Batasunaren hondortzearekin pribatizazioak orokortu zirenean, baratzezainak antolatu ziren 80.000 taldetan, txiki eta handi.

Sateliteetatik egindako argazkietan nabarmentzen denez, lur-sail guztiak 600 metro karratukoak dira, 30 luze eta 20 metro zabal. Eta datxa deitu etxola edo

etxetxoaz gain, beti badira bertan bai fruitu-arbolak, barazkiak eta apaingarritarako landareak, gehienetan oso eremu koloretsu eta biodibertsitate handiko bilakatzen dituztenak. 1959an Estatu sobietarrak *datxniki*-ei lege ezartzen zien nola antolatu eremuok: derrigor lur-sail bakoitzean landatu behar ziren hainbeste sagarrondo, gerezio, madari, aran, mugurdi, anderemahats, marrubi eta hainbesteko metro karratu barazki.

INDEPENDENTZIA, ORTUAN HAZTEN

Klima kontinentalaren eraginez, *datxniki* gehienek daukate etxebizitza nagusia hirian, baratzeak etxetxoak udan baizik ez duelako baimentzen bertan bizitzea, ez negu gogorrean. Alabaina, azken urteetan diru puska bat egin duten familia askok hormigoizko etxeak eraiki dituzte barazkiak abandonatuz, Europar hain ohikoak diren txaleten gisan. Azken hamarkadotan, gainera, baratzeak inbentarioen espekulaziozko presioa ere jasan dute. 2019an Moskuko gobernuak lege berri bat plazaratu zuen, espresuki espekulazioa mugatu nahian.

Hala ere, mende bat geroago, hiri bazterreko ortugintzak sakon erroturik darrai milioika errusiaren bizimoduan. Grimonpontek nabarmendu ditu horiek Errusiaren elikadura sistemaren erresilientziari eskaini dizkion abantailak. Datxak herritar askori ahalbideratu dio hiriko elikagaien aukerak osatzea norbera ekoiztutako barazki eta fruitu fresko, natural eta merke.



KALE-BASERRITARRA

NOVGOROD HIRI ONDOKO
BERE BARATZEAN: 600 METRO
KARRATUTAN, DATXAZ GAIN,
LANTZEN DITU BARAZKIAK,
FRUITU TXIKIAK, FRUITARBOLAK
ETA LILI APAINGARRIAK.
(ARGAZKIA: JONAS BENDIKSEN).

Kale-baserritar amateurrok funtsean Errusiako laborantza ekoizpenaren bigarren sail aparte bat osatzen dute, legez debekatuta baitaukate beren mozkinak saltzea. Bikoiztasun honek krisi garaietan erakutsi du zein garrantzizkoa den, bloke komunista desagitean esaterako, planifikazio zentralizatuaren antolatutako nekazaritza industrialaren produkzioa bat-batean amildu baitzen.

Garai latz haietan, langabezian erori edo soldata erdira edo laurdenera murriztuta aurkitu zen hainbesteri ortu txikiok bizia salbatu zieten. Ikerketa baten arabera, 1990eko hamarkadan famili-ortutan sortua zen Errusiak kontsumitutako janari guztien %20-30a. Urte oparoagoetan barazkiak utzi eta datxak aisialdirako lorategi bihurtutako kaletar asko berriro itzuli ziren antzinako usadiora, umetan gurasoei

lantzen ikusitako ortu eredua berreskuratuz.

Azken urteotan, *datxniki* askok lurra lantzeari ekin dio –mundu industrializatuko beste lurraldeetan bezala– ekologia, bizi sana eta elikagai natural eta merkeak estimatzearen poderioz: inguruko baserritar profesionalak simaurra erosi, trukeko ohitura zaharrak berreskuratu, ortuko landareen hondakinak eta baita hiriko etxebizitzetako asko ere konpostatu, eta abar. Grimonponten esanetan, Errusiako datxetan ere ezagunak dira komun lehorrak, jendeen eginkariak giza-konpost bihurtuta lurrari berreskuratzeko hain egokiak.

Sobiet Batasunaren garaian oroigarri geratzen dira baratzeotara iristeko bide asko oraindik lurrezkoak izatea –ingurumenarentzako askoz onuragarriagoak hormigoizko edo asfaltozkoak baino–

eta etxola eta etxe txiki askok zurezko izaten jarraitzea. Baina badaukate datxa-kolonia handiok beste ezaugarri bat hiritarrentzako oso garrantzizkoa: hiriguneen aldamenetan daude kokatuta, hurbil eta garraio publiko ingururaino iristeko moduan. Eta beti, legez garbi araututa familiaren barne kontsumorako ekoizten duela, gehienez ere ingurukoekin trukatzeko moduan.

“Baratze kolektibok –dio Grimonpontek– Errusiako milioika familiari ahalbideratu diete krisi eta gosetei aurre egiteko erantzun pragmatiko eta eraginkorra. Hiri baratzeok eduki dute osagai militante bat ere: lur-mutur landuok Errusiari bermatu diote independentzia maila bat. *Sei areak* [600 m²-ko eremuon ohiko deitura] kontzeptuak oraindik ere jendeari oroitarazten dizkio autonomia eta independentzia”. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t

Aritz Ibañez

DANTZARI MILLENNIALA



EUSKAL DANTZA GARAIDEA ETA URBANO ERE BADA



Sanferminetako prozesio eta dantza saioetan, Argia dantzari taldearen ikuskizunetan, Joxemiel Bidador Pastoralean eta Iruinkokoa euskal inauterian, *Dantza* filmean, aurreko ofizial garrantzitsuenetan, interneteko dantza tutorialetan koronabirusaren berrogeialdian, sare sozialetan egunero... Aritz Ibañez dantzaria, kazetaria eta tradizioaren berritzaile nekaezina, eten gabe dabilen harria.



REYES ILINTXETA



DANI BLANCO

Dantzazaletasuna etxetik datorkizu?

Baietz uste dut. Nire etxean dantzari-rik ez zegoen, baina nire bi izeba Udal Dantzariekin jotzen zuen Xut fanfarre mitikoan zeuden, osaba bat udal banda-ko txistularia zen eta beste bat gaitaria erraldoien konpartsan. Ni dantzan hasi nintzen gurasoek udal ikastolako dantza klaseetan apuntatu nindutelako 11 urte nituela. Irakaslea Dugunakoa zen eta berak batzuei proposatu zigun dantza talde txikira sartzea.

Dantza taldeetan gero eta mutil gutxiago dago?

Bada paradoxa bat: dantza nesken

alor bezala ikusi ohi da baina, aldi berean, dantza taldeen kudeaketa mutilen eskuetan izan da, batez ere. Gaur egun gertatzen ari dena da neskek berriaz plaza hartu dutenean, eta urtetan zokoratuta egon ondoren bere tokia berreskuratzen hasi direnean, mutilak hasi direla dantzak uzten. Nonbait botere espazio horiek galdu dituztela sentitu dute. Hori herri batzuetan argi ikusi da. Neskak dantzan hasi eta handik bi edo hiru urtera mutilak kasik desagertu dira. Zorionez gure taldean ez da horrelakorik gertatu, hain modu nabarian ez behintzat. Txikien dantza taldea dugu 90eko hamarkada-

tik eta beti izan ditugu neskak eta mutilak nahiko modu orekatuan. Egun 50 dantzari gara, bi heren neska eta heren bat mutilak. Dena den proportzioa ez zaigu gehiegi axola, sortu ditugun dantza berri guztiak genero bereizketarik gabekoak baitira. Bestalde, iruditzen zait dantzarena oso esparru polita dela bizikidetasuna lantzeko eta penagarria da mutilak edo neskak desagertzea. Badirudi mutil batzuentzat gune bat ez dela interesgarria suertatzen zer diren edo nor diren erakusteko aukerarik ez badie ematen. Gu saiatu gara hori ekiditen, inertiak berez horretara eramaten zaituelako.



Aritz Ibañez Lusarreta

IRUÑEA, 1979



Iruñeko Duguna Dantza Taldeko dantzaria eta hango arduraduna duela hamazazpi urte. Kazetaria da eta hainbat komunikabidetan aritu da lanean edota kolaboratzaile gisa (*Dantzan.eus*, *Euskalerria Irratia*, *Gara*, *EITB*, *Berria*...). Eusko kultur Fundazioan egiten du lan testigantzak biltzen Nafarroako Unibertsitate Publikoak abiatutako Nafarroako Ondare Immaterialaren artxiboa hornitzeko.



Noiz eta nola hasi zen Dugunaren transformazioa?

Gure inguruko beste talde batzuk egiten ari ziren bezala, 2007. urte inguruan gogoeta sakon bati heldu genion generoaren inguruan hala nola gure dantza taldearen funtzioari buruz. Guk egiten ahal genuen ekarpenaz egin nahi genuen hausnarketa. Esaten zen dantzaren mundua krisian zegoela, baina aldi berean ikusten zen inoiz baino dantzari gehiago zegoela taldeetan. Argi ikusi genuen dantza talde eredu zehatz bat zela krisian zegoena. Hango eta hemengo dantzak erreproduzitzen zituena modu fidelagoan edo ez horren fidel. Gu horietako talde bat ginen, horrek guztiak guretzat ez zuela zentzu handirik ikusi genuen eta, beraz, aldatu behar genuela. Garai hartan, gainera, ezagutu genuen Jesus Ramos Ortizadar taldeko kideak bere garaian Iruñeko dantzei buruz egin zuen lan mardula. XVI. mendetik XX.era arteko dantza ibilbidea aztertu eta ederki erakutsi zuen hemen izandako tradizio aberatsa. Eta hark Iruñeko Udalaren Dantza taldea, gure taldea alegia, kate luze horren azken kate-begi gisa kokatzen zuen. Hori jakitean leiho bat ireki zitzaigun eta, aldi berean, nolabaiteko ardura sentitu genuen. Bide luze baten kate-begia garela ulertuta, sentitu genuen gure hiria jarri behar genuela gure jardunaren erdigunean, gaur egungo

Iruñean funtzio zehatz bat izanen zuten dantzak sortu behar genituela. Komunitate baten erreferentzia gisa balio zezaketen dantzak egin behar genituela. Hori dena oso modu irekian planteatu genuen eta gure baloreekin bat etorriko ziren dantzak, genero bereizketarik gabeko dantzak esate baterako, egiteari ekin genion.

Zenbat dantza berri egin duzue?

Iruñeko festa egutegiari begiratu eta jai garrantzitsuak hautatu genituen dantza berriak sortzeko. Hamabi urte kosta zaigu gure errepertorioa berritzea eta oraindik ez dugu amaitu, baina dagoeneko baditugu San Fermin Aldapakoaren Ezpata dantza, San Blas eta San Juan eta baita Batasunaren Pribilegioaren egunean dantzatzen ditugun soka dantzak, Sanferminetako zazpi trokeo dantza eta Euskarak 365 egun ekimenerako egin genuen soka dantza. Alde erritualaz gain alde soziala ere oso garrantzitsua da gure ustez. Izan ere, Karrikadantza, hilean behin egiten den dantza topaketa irekia, gure musika taldetik sortu zen. Modu berean, iaz sortu zen Iruinkokoa Iruñeko Euskal Inauterian ere oso sartuta gabiltza beste elkarte batzuekin, dantza taldeekin, Antzerki Eskolako ikasleekin, gazte-txetako jendearekin eta musikari askorekin batera.

Oso harrera ona izan du libertimendu honek, ezta?

Iaz, lehen aldiz egin genuenean, suizidio moduko bat izan zen, ez genekielako oso argi zer emanen zuen, baina egia esan oso pozik gaude emaitzarekin, batez ere gazteen parte hartzea oso handia delako, eta aldi berean, hainbat alor eta belaunalditako jende asko egon delako lanean. Libertimendua dela esan daiteke libertitzen garelako, moldeak Iparraldeko inauterietako antzezlanen antzekoak dira, baina Iruñera egokituak. Esaterako, jazz musika lantzen duen Ion Celestinok atondu ditu dantzetarako musikak. Helburu garrantzitsuenetakoa da gazteei plaza bat ematea, gazteak beraiek izan daitezela kontatuko denaren sortzaile.

Gure ustez oso garrantzitsua da euskarari esparru elebakarrak ematea eta horrez gain, Iruñeko euskal komunitate sakabanatuaren kideen arteko elkargunerako ere oso baliogarria izan da ekimen hau.

Ohiko dantzak ere eskaintzen dituzue zuen emanaldietan?

Poliki-poliki sortu dugu gure erreperitorio propioa eta gaur egun hori da gehienbat dantzatzeko duguna. Beste dantza batzuk entseatzeko segitzen dugu gorputza lantzeko, erreminta gisa interesgarriak iruditzen zaizkigulako eta plazan ere tarteka eskaintzen ditugulako, baina adibidez, genero aldetik arazoak sortzen dizkiguten dantzak ez ditugu ematen. Bikoteko dantza batzuk, edo Nafarroa Behereko kontradantzak, esate baterako, iruditzen zait heteronormaren arabera sortuak direla eta horregatik momentu honetan ez zaizkigu eroso gure filosofian. Hor gogetarako gaia badagoela uste dut.

Zenbait tokitan batzuei zaila suertatzen ari zaie aldaketak onartzea, tradizioari traizio egitea bailitzan...

Niri tradizioa ulertzeko modu desegokia iruditzen zait. Euskal esaerak dio, dabilen harriari goroldiorik ez... Niretzat tradizioak daukan ezaugarri nagusia da garai bakoitzari egokitzeko daukan gai-

tasuna. Egokitzen ez bada ez da tradizioa, zuri beltzezko argazki hutsa baizik. Erritoei momentu bakoitzeko gizartearen baloreekin bat egin behar dute, bestela gizartearekiko deskonexioa gertatzen da eta ondoren desagerpena.

Baina tradizioa eta tradizionala ez dira oso modako kontzeptuak, ezta?

Askotan tradizioa gauza atzerakoiekin lotzen da eta konnotazio txar horiek helburu politiko bat dute. Euskal tradizioez maiz modu negatiboan hitz egiten da euskalduntasunari kalte egiteko. Ni ez nago ados. Niretzako tradizioa etengabe berritzen den zerbait da, aurrera begira mugitzen den zerbait. Oteizak zioen bezala, tradizioa traineru moduko bat da: atzera begira baina aurrera mugitzen den zerbait. Gure erronka da errito zaharrak berritzea, gure iruditeria berritzea, komunitatea sendotzeko helburuarekin. Horrela begiratuta, tradizioa ekimen iraultzaile bat izan daiteke.

Agian hasi beharko dugu esaten dantza garaikide eta urbanoa egiten dugula. Eta egia da: garaikidea, azken urteotan sortutako dantzak egiten ditugulako, eta urbanoa hiriko kaleetan dantzatzeko dugulako. Gu XXI. mendeko dantzariak gara, lehenagotik datorren dantza ibilbidearen kate-begi berriak. Euskal kultura aspaldiko gauza zaharra bezala ikusten badugu, mespretxua baino ez dugu lortuko.



Niretzat tradizioak daukan ezaugarri nagusia da garai bakoitzari egokitzeko daukan gaitasuna.

Egokitzen ez bada ez da tradizioa, zuri-beltzezko argazki hutsa baizik

Nola egiten dira dantza berriak?

2007an elkarlanean hasi ginen Argia Dantzari Taldearekin, Juan Antonio Urbeltz eta Marian Arregirekin. Haiek 'Axuri beltza' dantza bersortu zuten, adibidez. Elkarlan hau mugarria izan da gure ibilbidean.

Gure aurrekoak nola jardun diren ezagutu eta hortik abiatu gauza berriak sortzeko. Eta hori da, funtsean, haiengandik ikasi duguna. Hizkuntzarekin alderaketa eginen bagenu, esan daiteke dantzaren tradizioetik hitz solte batzuk baizik ez zaizkigula iritsi, eta gramatika osoago bat faltan dugula. Argiako lagunek gramatika hori erakutsi digute. Orain lehenagoko hitzak ulertu ez ezik, hitz berriak ere sortzeko gaitasuna

dugu. Mintzatzeko, alegia. Eta berdin beste kulturetako dantza baliabideak, jantzi, koreografiak... ezagutu, ikusi eta gurera ekartzeko askatasuna ere badugula sentitzen dugu. Joxemiel Bidadorrek zioen dantzan dena asmatua zegoela, kontua dela nola ordenatzen dituzun daukazun osagaiak. Lan egiteko molde horri "ontsa plagiatzeko metodoa" deitu dio Oier Araolazak, [Bernardo] Atxaga parafraseatuz, eta oso definizio umoretsu eta egokia iruditzen zait.



AURRESKUAK

"Berez dantza ekintza komunitarioa da, beste gauza bat da zer bilakatu dugun. Adibide garbiena aureskua da. Hau komunitatean sartzeko gonbitea da. Soka bereko kide izateko gonbitea egiten zaio omenduari. Etimologikoki auresku da aurreneko eskua, lehenengoa, horrek esan nahi du beste esku batzuk ere badirela. Eta gaur egun ez da horrela egiten. Norbaiti dantzatzeko zaion zerbait da, opari bat, besterik ez. Hamarnaka dantzatu izan ditut nik. Gehiegi. Dantzatu ditudan batzuk ez nituela dantzatu behar izan uste dut. Iruditzen zait eredu atletikoa eta pertsonalizatua elikatzen ari garela".

TRADIZIOA MEMORIA KOLEKTIBO GISA

"Tradizioa definitzeko beste modu bat izan daiteke memoria kolektibo gisa. Gure komunitateak baino indar handiagoa duten beste batzuek maiz esaten digute gure komunitatea zaharkituta dagoela, tradizionala eta atzerakoa dela eta konplexu hori barneratu dugu. Horregatik iruditzen zait gehiegitan ibiltzen garela hemen-dik kanpo homologazio bila".

Zergatik sartzen dira gazteak dantza taldeetara gaur egun?

Argi dago zerbait ateratzen diotela, bestela ez ziren etorriko. Niretzat gaur egungo zurrumbilo hauetan entsegue-tara joatea oasi moduko bat da. Izerdia bota, irriak egin lagunekin, dantzatu... Lehengo egunean Itsaso Agirre lagunak aipu bat erakutsi zidan: dantza dela helburu eta erabilgarritasun kapitalistarik gabe mugitzea. Eta oso polita iruditut zitzaidan. Kapitalismoaren kontrako botika izan daiteke dantza. Jendeak hartzen du beretako denbora bezala, bere komunitateko jendearekin partekatua, gainera. Dantza taldea esparru berezia da. Gurasoek seme-alabentzako ongi ikusten duten lagunartea eta gazteen-tzat askatasun eremua.

Gazteak identifikatuta sentitzen badira, dantzak jarraipena izanen du. Erritutik komunitatea sortzen da eta komunitatetik erritu berriak.

Harremanetan zaudete Euskal Herriko beste dantza talde batzuekin?

Bai. Donostiako Argia taldean ere aritzen naiz dantzan. Eibarko Arrateko Amaren dantzarien kofradiako eta Andoaingo Santa Kruzeko ezpata-dantzarien kofradiako kide ere banaiz, ohore handiz.

Martin Zalakain ikuskizunean elkarrekin aritzen gara Eibar, Elgoibar, Biarritz, Donostia, Portugaleteko... hainbat taldetako kideak eta hilerio biltzen gara. Sare handi bat ehundu dugu azken urteotan.

Zergatik izan da horren korapilatsua Duguna taldearen azken urteotako historia?

Dantza Taldea Iruñeko Udalak sortu zuen 1949an eta ekitaldi ofizialetan udalbatza laguntzea zen bere eginkizun nagusia. 1978an taldeak erabaki zuen bandelariak Iruñeko eta dantza taldearen banderez gain, Nafarroakoa eta ikurrina ere eramango zituela. Hasierako urteetan ez zen arazo handirik izan, baina PSN sartu zenean hasi zen esaten hori beste erkidego bateko bandera zela eta 87an, UPN sartu zenean, udalak esan zion taldeari ikurrina ez ateratzeko. Dantzariekin akordiorik ez eta udalak "inexistente" deklaratu zuen taldea. Taldea elkarte independente gisa antolatzen orduan, 1951n egin zuten ikuskizun baten izena hartuz, Duguna, alegia.

Nahiko traumatikoa izan zen taldearentzat. Kale gorrian gelditu zen eta



1996ra arte dantzariak Sanferminetan dantzatzen zuten, baina beren kabuz, ez modu ofizialen. 1996an [Jose Javier] Chourraut alkateak berreskuratu nahi izan zuen lehenagoko ohitura eta azkenean banderarik gabe ateratzeko akordioa sinatu zuten. Kritika gogorak jaso zituen taldeak. Urte latzak izan ziren eta niretzat pertsonalki ere bai. Energia pila galdu genuen horrekin, orain beste gauza batzuetara bideratzen duguna.

Guk beti izan dugu garbi zer garen eta nor ordezkatzten dugun. Gainera, esanen nuke azken hamar urteotan bere onera etorri dela afera.

Gaur egun zer harreman mota duzue udalarekin?

Orain udalak zerbitzu guztiak externalizatuak ditu: txistulariak, gaita jotzaileak, konpartsa, Pamplonesa eta dantza taldea. Urte batzuetarako kontratua dugu sinatua eta soilik taldearen bandera ateratzen dugu.

Dantza gure gorputzarekin berradiskidetzeko aukera bat izan daiteke?

Zalantzarik gabe. Ez gara kontzienteko dantzarekin zer altxor dugun. Gaur egun balio handia ematen zaio jendearen osasun fisiko eta mentala mantentzeari eta guk hemen baditugu gorputza mugimenduan eta burua erne izateko aproposak diren dantza-jauziak, adibidez. Eta gainera, dantzatzeak komunitate bateko kide sentiarazten dizu eta sortzen duen plazera bikaina da endorfinak sortzeko.

“

Askotan tradizioa gauza atzerakoiekin lotzen da eta konnotazio txar horiek helburu politiko bat dute. Euskal tradizioez maiz modu negatiboan hitz egiten da euskalduntasunari kalte egiteko”

Dantzariak gain, kazetaria ere bazara. Zertan ari zara zehazki?
NUP Nafarroako ondare ez materialaren artxiboa egiten ari da eta haiekin elkarlanean, Euskokultur Fundazioan, Nafarroako herrietan XX. mende hasieratik nola

bizi izan den erakusten duten lekukotasunak biltzen ari gara. Pertsonalki adineko jendearekin hitz egin eta haien baloreak eta bizi moldeak ezagutzea oso aberasgarria iruditzen zait. Oso goxoa da jendearekin hitz egitea eta ikasten duzu berritasuna, berez, ez dela on soilik berritasuna izateagatik. ●



Erabakiak hartu behar



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Estatu arrotzen mende bizi gara, eta horren ondorioak oso nabarmen pairatzen ditugu krisi honetan. Ez gara gure buruen jabe, ez digute uzten premiazko erabakiak hartzen. Nahiz eta, krisiaren erdian, inoiz baino argiago ikusten dugun nondik datozen arazoak, zein den oraingo gabezien iturria eta zer den orain bertan behar-beharrezkoa.

Krisiaren larritasunak berez atera du azalera eta guztion begien aurrera orain arteko gizarte-antolaketa sakon aldatu beharra, eta aldaketa horretarako ildoak ere bai.

Ez da inorentzat zaila une honetan behar ditugun aldaketen programa aurkezten: osasun sistema publikoak indartu; zerga eta finantza sistema ekonomia sozialaren zerbitzura jarri; langile ordezkarien eta sindikatuen eragina ziurtatu plangintza ekonomiko berriak egiteko orduan; ezinbesteko diren lan eremuen berdefinizioa egin, lan sozialak, etxekoak zein gizartekoak, lehen mailan kokatu; feminismoaren proposamenak aktibatu eremu publiko zein pribatuan, bazterkeria eta genero-biolentzia behingoz amaituz; tokiko ekonomiak eta nekazal mundua lehenetsi merkataritzaren globalizazio negatiboaren orde; nazioak, eta ez indarrean diren estatuak, hartu subjektutzat politika orokorren definizio eta aktibazioan; euskara gune zentrolean kokatu Euskal Herrirako etorkizun berritua zabaltzeko

Hego Euskal Herrian
ditugun bi gobernuek
ez diote aurre egiten
Espainiako Estatuaren
erasoaldiari, batez ere,
honen “normalizazio”
ereduarekin
bat datozelako

orduan; krisiak indar berriz agertu duen krisi ekologikoari aurre egin, erregai fosilen gainbehera koiunturalaz baliatu eta energia iturri alternatiboak bultzatu; hezkuntza sistemaren publikazioa eta modernizazioa burutu; desmilitarizazioa eta demokrazia eredu berrituak indarrean jarri, maila askotan berragertu den autoritarismoa lurperatu.

Hilabeteotan bizi dugun egoerak ipintzen ditu guztion begien aurrean aldaketen beharra eta hauen norabidea. Hori da egin behar dena, bai. Baina ezin dugu egin, ezin dugu erabaki halako programarik. Non dira trabak? Agintzen duten estatuen jokabidean eta kapitalismo neoliberal globalaren nagusitasunean, jakina. Baina ez hor bakarrik. Azter dezagun apur bat kontu hau. Espainiako Estatuak kasurako, krisi hau apro-

betxatu egiten du jarrera autoritario, militarista eta zentralista indartzeko, “normalizazioa” itzultzea aitzakia hartu eta normaltze hori lehengora, edo hobe esanda, betikora itzultzea ulertuz eta inposatuz. Eta nork egiten dio kontra? Nork altxatzen du etorkizun eredu alternatiborik, lehen aipatu dugun programa ardatz hartuta? Argi esanda, Kataluniak. Katalunian bai, bertako Govern, herri erakunde eta gizarte sektore anitzek beren kabuz erabakiak hartu eta autogobernatzeko ahaleginetan ari dira. Eta Euskal Herrian? Hego Euskal Herrian ditugun bi gobernuek ez diote aurre egiten Espainiako Estatuaren erasoaldiari, batez ere, honen “normalizazio” ereduarekin bat datozelako. Hori da kontua.

Egia da Euskal Herrian piztu eta indartu direla herritarren artean etorkizun eredu berriak ekartzeko indarrak: lantegi handietako langileek planto egin dietenean seguritatek gabeko irekitze-asmoa; autonomoen protestak, laguntzeta-tik baztertuak izan direnean; nekazarien mobilizazioa beraien lana eta merkatua baztertuak izan direnean; euskalgintza, Euskaraldia berria krisi eta isolamendua- ren erdian berretsiz; feministen bultzada isolamendu egoeretan erasoaldiak geldiarazteko helburuz; militar espainiarren presentziaren aurkako mugidak... Hori guztia Euskal Herri osorako plangintza bihurtzea falta da, eta erabakiak hartzen hasi. Berton eta bertarako erabakiak. ●

Zeharkatzen erraza den zapalkuntza bakarra



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Arraza, generoa, klasea... egokitu zaigun erreka ertzean ematen dugu bizitza. Agian borrokan, geure tokiaz, egoeraz edo, nahi baduzue, patuaz jabetu eta "halabeharra" onartzen ez dugun momentutik, eta, bada, kolaborazionismo ziztrinaz, "suerte" hobeagoa daukatenen artean ezinezko toki bat irabazten ahalegiten denik ere.

Hala ere, diskriminazio eta zapalkuntza guztien artean, badago bat zeharkatzen erraza dena, denok, salbuespen barik, atzean uzten duguna: adinak markaturikoa. Egia da zahartzen garenean, adinagatik diskriminazioa itzultzen dela, baina hori beste kontu bat da, beste momentu batean kontatu beharrekoa.

Denbora pasatzen uztea bezain erraza da zapal dutako taldekoak izatetik, zapaltzaileen taldeko partaide izatera igarotzea. Naturaltasunez, ez dagoelako, azken batez, nagusitzea baino kontu naturalagorik. Ahaztu ohi dugu, ordea, oraingo nagusiok ume izan ginela. Area go, orduko umeak barruan daramatzagula. Zeharkatzen erraza izan bazen, ahazten are errazagoa bide da.

Hau idazten dizuedan momentuan, umeak oraindik daude preso eta astebete falta dute. Eurak izan dira guztiz giltzapeturik egon den giza-kolektibo

bakarra eta, gainera, hau egin da (egin dugu) hori ezartzen zuen zuzeneko inolako agindurik gabe. Izan ere, mugimenduak mugatzera etorri zen dekretuan ez zen beren-beregi inon galarazi; baina, arautu zen moduan, umeak *de facto* gelditu ziren legetik kanpo eta, horrela, edozein mugimendu galarazita. Heldu-zentrismo hutsaz egin zen, umeak guztiz ahaztuta eta jendartearen parte oso bat ardura gabe diskriminaturik.

Gainera, baimendutako mugimenduak azaltzen zituen artikularen idazkera traketsa aldatu ostean, esan liteke atea zertxobait ireki zitzaiela. Baina, ordurako, zabal onartuta zegoen kalea zapaldu ere ezin zutela egin, nahiz eta inorekin kontakturik ez eduki, hasieratik kutsapen foko nagusitzat seinalatuak izan ziren eta.

Ez da inoiz funtsezko arrazoirik egon ezin irteteko aitari edo amari ogitan laguntzen, esaterako. Ez da arrazoirik egon txikiak kotxetxoan tarte batez ez ateratzeko, esnetik D bitaminarik apenas jasotzen ez dutela jakinda... eta, bien bitartean, gu erosketetan, txakurra ateratzen, zaborra botatzen, lanera behartuta... kutsapen fokoa izan gintezkeen arren. Gu izaki kontsumitzaile, produktibo eta boto emailak gara. Umeak, ume baino ez.

Denok izan behar izan gara eta izan beharko gara inoiz zainduak. Eta denoi suertatuko zaigu inoiz zaintzea. Baina *zaintzaile* eta *zaindari* ez dira gauza bera. Eta, osasun krisi honen aurrean, botere politikoak, zaintzailearena egiten ari delakoan, batez ere, zaindariarena egin du.

Krisi honetan ez dira haurren esku-bideak aintzat hartu, baina, hala ere, aintzat hartzen direnean ere, ez dira elkartasun eta justizia sozialaren ikuspegitik defendatzen, babes eta zaintza hutsetik baizik. Eta babes-objektua den hori bere eskubideen subjektua ere bada edo, behintzat, izan beharko litzateke. Baina umeen kasuan, harri-garriki, ahaztu egiten dugu.

Kezkagarria da ume bat etxean, haizea hartu barik, egon behar izana. Baina niri ardura handiagoa ematen dit honek guztiak, tratatu ditugun moduak, sorrarazi diegun beldur eta kulpak izan ditzakeen ondorioak. Zeren eta, horrelakorik ez gertatzen ahalegindu arren, umeak egun osoan ari baitira edonondik heltzen zaien informazioa prozesatzen, momentu oro belarriak artez eta antena xut, disimulu handiz, ezer esan barik, nagusien gauzak direnez gero. ●

Zaldibar: tragediatik fartsara



IÑAKI BARCENA
EKOLOGISTAK MARTXAN
TALDEKO KIDEA

Karl Marx: "Historia bi aldiz gertatzen da. Lehena tragedia handia bezala eta bigarrena fartsa ziztrina bezala". Ez da metafora makala, zarama-politikoan pairatzen ari garena ulertzeko.

Tragedia (Artigas). Pilar Careaga Bilboko alkate faxistak, 1974an, udalerriko ertzean eta mendi aldean, Alonsotegitik gertu, zabortege bat ezartzeko agindu zuen. Inguruko 5.000 lagun sinadurei eta bizkaitarren protestei halaxe erantzun zien: *"Mi dimisión está por encima de la opinión del pueblo. Yo me debo a una superioridad... Arreglados estábamos los alcaldes si dependiésemos de estas cosas"*. Argiago ezin! Ia 50 urte pasa eta gero zabortegeak bertan jarraitzen du, bizirik. 2014tik Bizkaiko Aldundiak kudeatzen du eta 2005ean, bere ondoan *Zabalgarbi* erraustegia ezarri zuten. Artigasi tokatu zaio bizkaitarren kakaleku handiena izatea, gaurko ingurumen-agintariak alkate frankistaren ildoari jarraituz.

Fartsa (Zaldibar). Duela gutxi, Bizkaiko txoko toxiko honetatik Eitzagara, Ermua gaineko beste puntara joan da zaramaren kiratsa. Zaldibarko lurra dira baina Artigas eta beste zabortegetan bezalaxe, "inpaktuak", hots, isurketak, hatsak eta kamiokadak udaletxetik ia ez dira nabaritzen. Dirua bai. Batzuek diotenez zabarren negozioetan, garbiena zaborra da.

Zaramaren "balorazioa" dugu gako nagusia, nire ustez. *Verter Recycling* enpresak dioenez haiek *"valorizar los residuos que actualmente tienen como único destino depositarlos en vertedero"* egiten dute. Akzionista bi eta sei langile.

Datuen arabera, 2017. urtean 379.689 tona bildu zituzten eta 7.230.851 euro fakturatu. Atera kontuak. Zergak eta gastuak kenduz gero 1.744.876 euro libre. Urte berean Eusko Jaurlaritzak diru gutxiago dedikatu zuen hondakinen kudeaketarako hiru herrialdeetan. 2018an eta 2019an 540.667 eta 510.994 tona izan ziren. Irabaziak oraindik ez dira eskuragarri baina istripuak eragindako kalteak nork ordainduko ditu?

Euskal ekologismoak duela mende erditik, herrialde guztietan, zarama politika ustelak salatu ditu. *Gutxitu, berreskura, berziklatu* leloa aspalditik lapurtu ziguten. Hondakinak ez dira gutxitzen prezio (truke balioa, ez erabilera) oso altua dutelako. Eta batzuen etekin ekonomikoa, guztion osasuna baino lehenagoa da, antza. Koronabirusaren pandemiak ageri-agerian jarri du.

Osasunak eta zaramak kudeaketa publiko eta gardenaren beharra dute. Fartsarik ez. Zaldibar argitu eta betirako lurperatu! ●

Jaten dugunaz



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Konfinamendua hasi zenean, uste nuen etxea goitik behera txukundu nuela, ingeleseko *workbook*ak bukatuko nituela, apalategian nituen irakurri gabeko liburuei helduko niela, aspaldiko lagunei telefonoz deituko niela... Susmoa daukat erdibidean geratuko naizela. Galiziatik ekarritako galegozko poema liburuak irakurri bai, baina uste dut berdin gisan irakurriko nituela askatasuna deitzen dugun horretan. Beharbada nire kirola egiteko gogo falta estaltzeko, krisialdia hasi eta egin nuen lehendabiziko gauza kafea uztea izan zen. Ondotik gatzeta eta azu-

krea. Lehendabiziko egunetako buruko mina pasatuta, janaria prestatzen hasi nintzen. Nire bizitza osoan baino denbora gehiago eman dut sukaldean egunotan. Ondorioz etorri zen *Zer jan, hala-ko Baztan*-eko bideoen zale amorratua egitea, eta nola ez, Elbeteko ostatuko Belen Urrutiarena. Ez dakit zerbait ona aterako dugun honetatik, noiz bueltatu ahal izanen garen Elbeteko ostatura paseo bat ematen Elizondoko plazatik, baina nik askoz ere tentu handiagoz erosten dut jaten dudana. Jaten dugunak asko esaten du garenaz, eta, zer esanik ez, izan nahi dugunaz. ●

Etxealditik atzeraldira



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Birusaren ondoko gizartea ez da birusaren aitzinekoa bezalakoa izanen. Gaitzerdi, makurragoa ez bada. Aste hauetan zenbait jende kontrakoarekin ametsetan ibili bada ere, pandemiak ez du egungo sistema sozio-politikoak deseginen. Haren zuloak utzi ditu agerian. Aldatu beharra. Irauli beharra ere, agian. Alta, horrek ez du batere segurtatzen nagusituko diren errezetak bide horretatik joanen diren.

Giroan dago. Sarraski sanitarioari sarraski sozialak hartuko dio txanda. Izaitez, bateratsu gertatzen ari dira jada. Ospitaleetako ZIUak eta gorputegiak bete diren abiadura berean loditu dira langabeen zerrendak, ugaritu ERTEak. Etxealdiak hetsiarazi dituen enpresetarik franko ez dira berriz irekiko hura laxatzen denean ere. Bertze batzuek plantillak murrizturik izanen dituzte. Apalduerik ere urruntze neurriek indarrean iraunen dutenez, hilabete latzak iragartzen zaizkio turismoari, aisialdiari eta ostalaritzari.

Dirua aurrezteko aitzakian estatua mehetzea zer kario pagatzen den iza-

Etxealditik aterako gara
atzeraldian sartzeko.
Atzeralditik nola eta
nora atera nahi dugun
pentsatzen hasi behar
genuke. Edo nora ez
dugun atera behar

ten ari da, aunitzen iritziz, krisi honetako ikasbideetariko bat. Agerian gelditu dira osasunari eta gizarte ongizate sistemari azken urteetan aplikatu zaizkion murrizketen ondorioak. Ospitaleak, ohe faltan. Osasungintzako langileek, baliabide eta materialak eskas. Zahar etxeetan, baldintza negargarriak. Batailaren ondoren geldituko zaigun panoraman gizarteak inoiz baino gehiago beharko du botere publikoetatik. Estatuak, ordea, inoiz baino esku lotuagoak izanen ditu, jarduera ekonomikoak elikatzen

baititu, oroz gain, administrazioaren diru-sarrerak. Bankuei eman zitzaizen dirua itzultzeko eta fortuna handiei beren abertzaletasuna zerga bidez erakusteko eskatzea izan liteke irtenbidea, baina ez dut uste halakorik ikusiko duten gure begiek. Europatik zerbait etorriko da. Hala ere, hobe horretan esperantza handirik ez izan.

Etxealditik aterako gara atzeraldian sartzeko. Atzeralditik nola eta nora atera nahi dugun pentsatzen hasi behar genuke. Edo nora ez dugun atera behar. Hedabideetan irakurtzen ari gara zein diren pandemiari aurre egiten ongi asmatu duten herrialdeak. Gurea ez dago horien artean. Ez estatuak, ez haien barruneko egitura autonomikoak. Dena ez zen egungo agintarien errua izanen, baina hori bost, ondorio praktikoei dagokienez. Jendea ez dago kontent, eta are haserreago egoteko arrazoiak izanen ditu. Mendebaldeko historia hurbilak erakutsi digu halako giroan aiseago loratzen direla faxismoa eta autoritarismoa, iraultzaren deia baino. Ez ahal digu atzeraldia beharaldia ekarriko. ●





Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA



Europako txerri-ekoizle nagusiaren errailetan

 AITOR GARMENDIA / TRAS LOS MUROS

Espainiako Estatua da txerrien ekoizle –esplotatzailer– nagusia Europan, hirugarrena munduan, eta aurreikuspenen arabera, sektoreak hazkunde handia izango du datozen urteetan. Etxaldeek akuifero eta ibaietan eragiten duten inpaktu ekologikoari eta krisi klimatikoarekin duten lotura zuzenari buruzko eztabaida azaleratzeaz gain, animaliek jasaten dituzten gehiegikerien inguruko kezka soziala hazten ari da pixkanaka, eta haien aurka egindako indarkeria-irudiak gero eta leku handiagoa hartzen ari dira komunikabideetan.

Irudi horiek, oro har, ikertzaileek lortzen dituzte. Kamera eskuan hartuta edo ezkutuko kamerak ezarriz, leku horietara trikimailuz eta abileziaz sartzen dira. Baserri, hiltegi edo laborategietara ezkutuan sartzeak gero eta blindatuagoa den industria baten errealitatea erakusten dio jendeari, kontsumitzaileei. Animaliek sufritzen duten esplotazio sistematikoari aurre egiteko jaio den mugimendu politiko eta soziala ez litza-teke egun dagoen egoeran izango, zenbait antolakunde eta ekintzailek egindako ikerketa grafikorik gabe.

Baina denak du prezioa. Aktibisten eta antolakundeen aurkako gerra irekian, haien praktikak jendaurrean ikusgai egon ez daitezen, animalien esplotazioaren industriako lobby boteretsuek beren instalazioetan egindako ezkutuko ikerketak jazartzera bultzatu dituzte erakunde publikoak. Europolek Europako jarduera terroristari buruz urtero egiten dituen txostenetako batzuetan, ezkutuko ikerketa horiek aipatzen dituzte. AEBetan, non animalien eskubideen aldeko mugimenduak ibilbide historiko zabala duen, industria blinda-

tzeko neurriak ez dira ikertzaileen infiltrazioa oztopatzera mugatu, eta haien boterea haratago hedatu dute. Azken hamarkadan, beren instalazioen barruan irudiak filmatzea edo lortzea jazartzen duten legeak bultzatu dituzte lobbyek. Lege horiek, "Ag-gag" izenekoak, eztabaida handia sortu dute, eta auzitegi batzuek konstituzioaren kontrakotzat jo dituzte. Katalunian, Espainiako Estatuan txerri haragi ekoizpenik handiena duen lurraldean, berriki blindaje-neurriak ezarri dituzte instalazioen barruan baimenik gabe filmatzen dutenen aurka, gisa honetan informazioarako eskubidea eragotziz.

Haragi-korporazioen establezimendu barruan gertatzen dena ezkutatzeko interesaren eta haien propagandaren aurrean, ikerketek informazio garrantzitsua ematen diote gizarteari, eta industria horri aurre egiten dion mugimenduari tresnak ematen dizkionte. Horrela, jendea bultzatzen ari dira animaliek jasaten dituzten kalteen inguruan kontzientzia hartzera eta haien defentsan parte hartzera.

Hainbat hilabetez, animalien eskubideen aldeko ikertzaile anonimo talde batekin batera, Aragoi, Gaztela-Mantxa eta Gaztela eta Leongo 30 txerri-ustiategi baino gehiagora sartzea lortu dut. Beste behin ere, animaliek jasaten dituzten izugarrikeria, gehiegikeria eta albaitarien eta erakundeen arretarik ezaren lekuko izan naiz, baita abere-industriaren gardentasun falta eta animalien ongizatearen legea urratzen dutela ikusi ere.

Datozen asteetan aurkeztuko dugun ikerketak mugimendu antiespezistak sustatutako eztabaidari ekarpena egin nahi dio, gizakiak ez diren animalien esplotazio sistematiko eta estrukturalari buruzko informazioa emanaz. ●

Txerriak amengandik banandu
ondoren, trantsizio-eremura
eramaten dituzte, eta, ondoren,
gizentze-eremura. Lau edo
bost hilabetez zementuzko
parke txikitan bizi dira, beren
pixa eta kakaren gainean.
Azkenean hiltegira kamioietan
bidaltzen dituzten arte.



△ Ikertzaile bat txerri ustiategi baten perimetroa
arakatzen, hara sartu aurretik. Bere helburua da
abeltzaintza intentsiboko sistemaren pean animaliek
jasaten dituzten gehiegikeriak dokumentatzea.

2019KO AZAROA / GAZTELA MANTXA



△ Amatasun-eremurako sarreran,
txerriei hazia jartzeko erabiltzen diren
ehunka kanula daude.

2019KO URRIA / GAZTELA-MANTXA



Amatasun-kairoletan, txerriek ezin dute beren gorputzaren inguruan biratu eta beren gorotzen gainean erditzen dituzte kumeak. Hilik jaiotzen diren txerriez gain, ahul jaiotzen direnak al baitariaren arretarik jaso gabe hiltzen dira. Espainiako Estatuan animalien ongizateari buruzko legeak aukera ematen du txerri horiek baserrian bertan hiltzeko, buruan kolpe gogor bat emanda.

2019KO MAIATZA / ARAGOI



Amatasun gelak korridore batean zehar daude. Ikertzaileetako bat gelaz gela doa.

2019KO ABUZTUA / ARAGOI



Ikertzaile bat biosegurtasuneko edukiontzia filmatzen, txerri-ustiategi baten irteeran. Hilik jaiotzen direnez gain, txerri batzuk ez dira gai esplotazio bizi-baldintza horiei aurre egiteko.

Ikertzaile bat oraindik bizirik
dagoen txerri bat argitzen.
Gizentzeko eremuko
korridorean hiltzen utzi dute.
Gaixo dauden animaliak
hiltzen uztea praktika
arrunta da, eta ikerketan
bisitatu ditugun etxalde
askotan ikusi dugu. Horrek
urratu egiten du animalien
ongizateari buruzko araudia.

2019KO ABUZTUA / ARAGOI




Amatasun-kaiioletan dauden
txerrien gorpuak erabat
immobilizatuta daude ernaldiaren
lehen lau asteetan, Europako
araudiak baimendutakoaren
arabera. Metalezko egitura
horiek, presio eta marruskadura
etengabearen ondorioz, zauri eta
infekzio ugari eragiten dituzte,
oso gutxitan tratatzen dituztenak.

2019KO ABENDUA / ARAGOI



➤ Ernalketa-fasearen ondoren, txerri emeak amatasun-eremura eramaten dituzte, eta han berriro burdinazko armazoieta sartuta egoten dira, beren buruaren gainean biratzea galarazteko. Kaiola horietan bost aste igarotzen dituzte txerriek titia kendu arte.

2019KO MARTXOA
GAZTELA ETA LEON



➤ Espainiako Estatuan eta Europako Batasuneko lurralde gehienetan legeak aukera ematen du ernaldiko lehen lau asteetan txerriak banakako kaioletan sartzeko, horietan immobilizatuta egoten baitira. Kaiolak baterian antolatuta daude, eta ehunka txerri har ditzakete bata bestean alboan.

2019KO ABENDUA / ARAGOI



➤ Txerri batek ondesteko prolapsoa du. Isolatu egin dute, odolak beste txerriak erakar ez ditzan. Animalien ongizateari buruzko arauaren arabera, ebakuntza kirurgikorik egin behar ez bada, animalia hil egin beharko litzateke, haren sufrimendua saihesteko.

2019KO AZAROA
GAZTELA-MANTXA





Krisitik irteteko gure gidoia idatzi eta horren alde borrokatu behar dugu”

AINHOA ETXAIDE

Ainhoa Etxaide Amorrortu LABeko militantea eta sindikatuaren Eskola Feministako arduraduna da. Amorruez bizi du koronabirusa baliatuta botereak abiatu duen erasoaldia, 2008ko krisiaren ondorioak oso presente baititu. Arrazoa ezkerrena dela dio, baina botere kontua dela hau eta momentuz ez dagoela herritarren eskuetan. Datorkiguna “ikaragarria” izan daiteke, ohartarazten du, baina, borrokatuz, boterearen agenda oztopatzeko eta alternatibak garatzeko aukerak daudela sinetsita dago.

 **ZIGOR OLEAGA**  **HODEI TORRES**

Nola ari zara bizitzen aste hauek?

Antsietate handiz eta oso amorratua. Berehala etorri zitzaizkidan burura 2008tik aurrera bizitakoak. Gatza, oraindik itxi gabeko zaurietan. Amorrua sentitzen dut batzuek etxeko lau pareten artean itxi gaituztelako, euren interesak askatasun osoz babesten eta borrokatzen dituzten bitartean. Ez gaude isilik, sareetatik, leihoetatik eta balkoietatik kritikatzeko eta salatzen ari gara. Sindikatuak ari dira, ahal den neurrian. Baina ongi dakite horrela ez dugula botereari aurre egiteko gaitasunik.

Zein agertoki irudikatzen duzu alarma egoera eta konfinamendua amaitzen direnerako?

Lan merkatuan ondorioak nabarmenak izango dira eta aurrekontuak berregingo dituzte. Esango digute diru iturriak txikitu direnez soldata, zerbitzu edota prestazio bidez iritsiko zaiguna askoz ere urriagoa izango dela. Krisiaren on-

dorioz, diote, baina egiten diren politiken emaitzak dira. Politikak aldatzen badira, emaitzak ere bai. Egiten uzten badiegu krisia langileok ordaindiko dugu, eta botere ekonomikoak aukera paregabea izango du bere interesetan sakontzeko.

Espainiako bankuak BPGaren %6,6 eta %13,6ra arteko jaitsiera aurreikusten du 2020rako, eta %18,3 eta %21,7 arteko langabezia tasa. Frantziako Bankuak BPGren %6ko hondoratzea aurreikusten du urtarrila eta martxoa artean.

Koronabirusa agertu aurretik ekonomia moteltzen ari zen, BPGren jaitsiera posiblea zenbatekoa izango zen eztabaidatzen ari ziren, krisi hotsak biderkatzen. Orain, gutxi batzuentzat oso oparoa den eredu ekonomikoaren ibilbidea eten egin da tarte batez, eta egoera tamalgarrian utziko gaitu denak. BPG asko jaitsiko da, baina zergatik jarri arreta hor? Zego-

naz, dagoenaz eta ekonomia berreraiki behar dela esaten dugunean irudikatzen dugunaz gure argazki propioa egin behar dugu. Krisitik irteteko gure gidoia idatzi eta horren alde borrokatu behar dugu.

Enplegu merkatuari dagokionez, zein egoera espero duzu Euskal Herrian?

Enplegu asko suntsitu da eta suntsituko da enpresek hori erabaki dutelako, haien errentagarritasuna irizpide bakarra dela ulertuta. Legeak eskuetan egingo dute, babes eta laguntza instituzional osoarekin.

Krisiaren aurrean zer zaintzen eta babesten den da kontua. Enplegu gutxiago suntsituko da irabaziak dituzten enpresetan kaleratzeak debekatzen badituzte, gertuko ekonomia berpizteko eta sendotzeko politika errealek eta eraginkorrak egiten badituzte. Enplegua sortuko da zaintzarako sistema publiko bat eraikitzeko erabakia hartzen bada. Zerbitzu publikoak indartzen badira. Lanorduak murrizten eta berrantolatzen badira.



Eta ordaindu gabeko lanen eremuan?

Merkantilizatu dituzten espazioetan gaizki, eta arautu gabekoetan are okerrago. Etxeko langileak eskubiderik gabe sartu dira krisi honetan eta asko kale gorrian geratu dira, paperik gabe askotan, inolako babesik gabe. Zahar egoitzetan, etxez etxeko zerbitzu edota garbiketa enpresa askotan baino segurtasun neurri gehiago dituzte industriako hainbat enpresatan. Zerbitzu hauei baino balio gehiago ematen zaio AHTari edo Bilboko Supersur errepide zatiari. Eta hor daude ondorioak. Emakume asko gaixotu da eta egin diren salaketek ez dute beste borroka batzuen oihartzunik lortu.

Jendarteko zein sektore izango dira kaltetuenak? Gure belaunaldiak ikusi ez dituen pobrezia eta bazterketa mailak ikusiko ditugu?

Konfinatu gaituzte eta politika bera aplikatuz ezberdintasunak areagotu dituzte. Etxeak eta familiak ez dira espazio seguruak indarkeria matxista bizi dutenentzat. Aurrezkiei esker bizitzea ez da aukera bat soldata oinarrizko premiak asetzen agortu dutenentzat. Etxegabeak ezin dira konfinatu. Berdin zaie. Erabakiren bat hartu da, presioen ondorioz, baina fundamentuzko ezer ere ez.

Ez dago pobrezia buelta ematerik eskubide sozialen iturria enplegua bada eta politika sozialak jarduera ekonomiko kapitalistaren arabera badira. Prekarietatea eta bazterketa soziala derri gor handituko dira oinarrizko bizi premiak merkatuan erosi behar badira. Ez baitira publikotik ziurtatzen, etxebizitza bereziki. Egoera horiek ez dira krisiaren ondorioak, ereduaren emaitza logikoa baizik.

Enpresa txiki eta autonomo asko desagertu daitezke, handien probetxurako.

Lehiakortasunaren izenean egin dituzte politika ekonomiko guzti-guztiak, eta gure oinarrizko egitura ekonomikoa izan behar duen gertuko ekonomiak –enpresa txikiak, autonomoak...– ez du inolako aukerarik enpresa handiekin lehiatzeko. Komertzio txikia itxirik dago Amazon eta antzekoek negozioa egiten duten bitartean. Edo negozioa egin dezaten. Handiak txikia jango badu, sarraskia ikaragarria izango da.

Baina badago zer egin: jarduera ekonomikoaren etete partzialetik erato-



rritako zorrak kendu, jarduera berreskuratzeko laguntzak eman, enpresa bakoitzaren errealitatearen arabera neurriak ezarri, enplegua mantentzen dela ziurtatu laguntzak ematerakoan...

Botere guneetatik irteera keynesiar eta 'sozialago' baten aldeko ahotsak ere entzuten dira: Marshall plan berri bat Europan, gutxieneko errenta unibertsala Syllicon Valleyko zenbait gururen ahotsetan...

2008an sistema finantzarioaren kontrola zorroztu behar zela entzun genuen. Badaude eredu soziala indartu behar dela aldarrikatzen dutenak, kapitalismo berdea posiblea dela pentsatzen duenik eta M8an benetako berdintasuna ezarriko duen feminismo liberala aldarrikatzen duenik ere. Sistema betikotzeko moldaketak lirakeke. Hor ez dago alternatibarik.

Dena den, uste dut badagoela zer eztabaidatu. Ez ditzagun lorpen erreformistak baztertu, gutako batzuk neurri horiek gabe bizi gaitezkeelako. Politika sozialak herritar askoren bizi aukera bakarra dira. Bata edo bestea dikotomian zangotrabatu beharrean, alternatibek behar duten trantsizio prozesuaren eztabaidan sakondu behar dugula uste dut.

EAJ zer posiziotan ikusten duzu?

EAJn ez da inolako sentsibilitate sozialik antzematen, oso esanguratsua da. Kontrakoa: aipatzen diren neurri edo politika batzuk EAJk zuzendutako gobernuak ezarri zituzten –Diru

Sarrerak Bermatzeko Errenta, kasu- eta orain horiek deuseztatzea da Jaurlari-tzaren helburua. Ez dut uste lehengo eta gaurko EAJ denik aldea. Garai bateko garaien sozialak dira, behartuta hartu zituzten neurriak. Pasa den krisian asko suntsitu zuten eta oraingoan bide beretik doaz.



EAJk pasa den krisian asko suntsitu zuen eta oraingoan bide beretik doaz

Zaldibargo krisitik gentozen, krisi honen kudeaketan hainbat polemika piztu dira...

EAJren kudeatzaile onaren mitoan arrakalarik ikusten duzu?

Bakoitzaren proiektuak eta balioak eguneroko erabakietan antzematen direla ikusi genuen Zaldibarren. EAJk zaberrak kudeatzeko sistemaren eta bere

ZAHAR EGOITZAK OSASUN KRISIAN

Birusak ipurdi bistan jarri du zaintza sistema

Bizkaian 378 eguneko greba. Gipuzkoan 243. greba egunean lanera itzuli ziren, COVID-19ak dena hankaz gora jarri zuelako. Egoitzetako langileek urteak daramatzate lan baldintza kaskarrak salatzen eta egoiliarrak ondo zaintzeko baliabideak behar dituztela esaten. Konbentzitura zeuden ez zebilen zaintza sistema argitara aterako zuela birusak. Aurreikusi zitekeena gertatu omen da: baliabide nahikorik ezean egoiliarrak eta langileak kutsatuta, 600dik gora egoiliar hil dira Hego Euskal Herrian eta Gasteizko Caser egoitzan lehen langilea zendu da.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANI BLANCO

Aspertu arte entzun dugu osasun krisi honetan ahulenak eta gehien babestu beharrekoak adinekoak direla. Beste kontu bat da esanek eta ekintzek bat egiten duten. ELA sindikatuak azken urteotako bi greba luzeenetarikoak lideratu ditu Bizkaian eta Gipuzkoan. Yolanda Rovira eta Txomin Lasa egoitzako langile eta sindikatuko arduradun dira, hurrenez hurren, eta ondoko orrialdeetan kontatu digutenaren arabera, ez

datoz bat zaharrenganako babes hitzak eta egoitzetako kudeaketa. Egoiliarren senideak berriz, bakarrik sentitu dira, triste eta kezkatuta ezin dituztelako bisitatu, eta haserre, egoitzen kudeatzailerak zuzen diren enpresak eta arduradun nagusi diren foru aldundiak eraginkortasunez eta gardentasunez aritu ez direlako.

Neurriak hartzen gaizki eta berandu ibili direla diote langileek eta senideek. Ondorio batzuk neurgarriak dira. Zi-

frak beti dira hotzak, baina laguntzen dute panoramari tamaina hartzen. Ondoren azalduko ditugun datuak apirilaren 23 bueltakoak dira. Kopuruak gora egingo zuen ordutik, zoritxarrez. Hego Euskal Herrian 1.525 pertsona hil dira eta horietatik 627 zahar etxeetako egoiliarrak dira (guztia %41,1). Herrialdeko alderaketa eginez gero, Araban 325 herritar hil dira eta 142 (%43,69) dira egoiliarrak. Bizkaian 579 dira hildakoak eta 157 (%27,1)





egoitzetako erabiltzaileak. Gipuzkoan 220 hil dira eta 146 (%66,36) dira horien artean egoiliarak. Nafarroan berriz, 401 hildakoetatik 182 (%45,38) bizi ziren egoitzetan. Birusari aurre egiteko lanik handiena adin talde honen izango zuela bagenekien, eta agian, bateren batek pentsa dezake datuok ez direla hain aztoragarriak. Beste datu bat: positibo guztien %15 baino gutxiago dago egoitzetan. Deigarria da heriotzak egoitza batzuetan pilatu direla

eta beste batzuetan koronabirusa ia agertu ere ez dela egin. Zirrikitu aurreratu duen tokietan sarraskia eragin du; senideen eta langileen iritziz, gelditu ez, baina geldotu zitekeen egoera baretzeko neurriak ez direlako hartu. Beste egoitza batzuetan gauza bera gertatzeko arriskua dagoela uste dute.

ELA sindikatuak zortzi demanda jarri ditu langileen osasuna eta segurtasuna babesteko neurriak hartu ez direlako. Gipuzkoan Ordiziako San

Jose, Tolosako Iurreamendi eta Zumarragako Argixao egoitzak kudeatzen dituzten enpresei eta Foru Aldundiari jarri zizkieten demandak eta Bizkaian Barakaldoko Miranda Fundazioari eta Sanitaksi, Bilboko Gurena Txurdiragari, Arrigorriagako Arandiari eta Ermuko Abeletxeri. Epaitegiek arrazoia eman die zortzitik zazpi egoitzetan. LAB sindikatuak EAEko Osasun Sailari hainbat egoitzatan zuzenean esku hartzeko eskaria egin dio egoera larriaz jabetuta. ●

YOLANDA ROVIRA

“Ez ditugu esker gutunak nahi, baliabideak behar ditugu”

Barakaldon dagoen Miranda Fundazioa egoitzako langilea da, baita ELA sindikatuko ordezkarria ere. 200 egoiliar inguruko egoitzan 30etik gora adineko hil dira martxoaren 1etik, batzuk COVID-19ak kutsatuta. Elkarriketa egin genuenean 40 erabiltzaile zeuden positibo emanda. 25 langile zeuden bajaran birusa tarteko. Rovirak ez du Unai Rementeria diputatuaren esker gutunik nahi, baliabideak nahi ditu koronabirusari aurre egiteko.

Handia da Miranda Fundazioa egoitza. 230 egoiliarrentzako tokia dauka eta 200 inguru langile ari dira beharrean. ELA sindikatuak Bizkaiko beste lau egoitzatan bezala, hemen ere demanda jarri zuen osasuna eta segurtasuna babesteko neurriak ez zirelako hartzen. Baldintza kaskarretan lan egiten duten emakumeak (gehienak hala baitira) direla dio Rovirak, eta COVID-19ak dena azalera atera duela: “COVIDak gauza asko kendu dizkigu, baina bat eman digu; inork ezin du esan zaintza sistema honek funtzionatzen duenik”.

ZUZENDARIAREN KALKULU KRUELA

Lan handia dute egoitzan, egoera arruntan baino handiagoa. Hala ere, langileen bajak ez dira ari ordezkatzen. Eusko Jaurlaritzak ezarritako ratioak (hainbeste langile hainbeste egoiliarreko) betetzen dituzte, eta beraz, hainbat langile kontratatu badute ere, bajak betetzeko adina ez. Osasun krisiaren hasieran hala esan omen zien zuzendariak langileei: “Ez zaitezte kezkatu, orain hainbat hildako izango dira eta berririk ezin dugu onartu egoera berezi honetan”. Martxoaren 1etik 30 bat hil

dira eta Rovirak onartzen du egoiliar dezentze gutxiago dutela zaintzeko. Baina haserre dio: “Hildakoak aurreikusi eta lasaia ibiliko garela esatea gogorra da gero!”.

BAJAK, USTE BAINO GUTXIAGO

Rovirak baja gehiago espero zituen, nonbait. 200 langileko taldetik 50 bat bajaran daude eta horietatik erdiek dute zerikusia osasun krisiarekin, alegia, 25 horien artean daude positibo eman dutenak, kutsatzeko arriskuan egon direlako bakartuta daudenak eta arrisku taldeetakoak direlako sendagileek baja eman dietenak. Elkarriketa egin dugunean (apirilak 23) langile guztiei egitekoak ziren testak egin gabe zeuden. Testak egindakoan baja gehiago egoteko arriskua zegoela zioen. Zuzendariak ere horixe zuen kezka: “Testen kontuarekin kezkatuta dago, zeren dio langileen ehuneko handi batek baja hartzen badu positibo eman duelako, ea nola moldatu behar duen. Aurpegian egoera lehertu baino askoz lehenago neurriak hartzeko aukera izan zuen, iragarria zegoen hau, ez genuen gelditzea lortuko, baina bai geldotzea”.

BOST MINUTU BEHINTZAT HIL-HURREN DIRENEKIN

Gaixoak zaindu behar dira, batzuk hil-hurren daudelako eta beste batzuk hain larri egon gabe ere koronabirusak jota daudelako. Senideek ez dute baime-nik barrura sartzeko eta langileak dira egoiliarrekin dauden bakarrak. Ardura sentitzen dute: “Bost minutuz bada ere hil-hurren direnei eskutik heldu behar diegu, norbaitek egon behar du haien ondoan. Beste batzuk ez daude hain larri, baina gaixo daude eta haiek ere arreta handiagoa behar dute”.

ZENBAT HIL OTE DIRA KORONABIRUSAK KUTSATUTA?

Buruz ari da Rovira: 35 bat hildako eta 40 positibo egoiliarren artean. 35ak ez dira hil birusak jota, baina Rovirak uste du esaten duten kopurua baino handiagoa dela egoitzetan COVID-19ak jota hil-



YOLANDA ROVIRA

Babes ekipoa kendu berri.

dakoena. Orain testak egiten ari direla dio, baina lehenago halakorik ez dutela egin eta haien aurrean ikusi dituzte hiltzen sintoma nabarmenak zituzten adinekoak, positiboen artean agertuko ez direnak, testik egin ez zirelako: “Gu ez gara medikuak, baina sendagileak ia 200 egoiliar artatu behar ditu eta gutako bakoitzak 20-30. Oso ondo ezagutzen ditugu gure erabiltzaileak eta antzeman diegu sintomak izan dituztenei. Horregatik diogu birusak jotako hildakoen kopurua esaten dutena baino handiagoa dela”.

TXALORIK EZ, ESKER GUTUNIK ERE EZ

Ez du uste irtenbide egokia denik langileak egoiliarrekin batera itxialdian egotea. Bere ustez horrek erakusten du zaintza zerbitzuetan gabeziak daudela, kudeaketa kaskarra azaleratzen da. Sarri esaten omen diete aparteko langileak direla eta Rovirak dio ez dutela apartekoak izan nahi, lana duin egiten duten beharginak izan nahi dute. Ez du haien aldeko pegatinarik edo paparrekorik nahi, ezta txalorik ere. Bizkarreko zapladatxo goxoak ere soberan omen daude. Unai Rementeria Bizkaiko ahal-dun nagusiak esker gutuna idatzi die: “Ez ditugu esker gutunak behar, orain gure eskura ez dauden baliabideak behar ditugu gure egoitzetan”. ●

TXOMIN LASA

“Instituzioek eta enpresek onartzen dute hildakoak egon daitezkeela egoitzetan”

Gipuzkoako egoitzetako ELAko arduraduna da. Elkarriketa apirilaren 15ean egindakoa da. Litekeena da esandakoren bat zahartua geratu izana, osasun krisiari kolpeka erantzuten ari baitira gizartea, erakunde publikoak eta enpresak.

Gipuzkoako hiru egoitzetan demanda jarri duzue beharrezko neurriak ez hartzeagatik. Ondorio gogorrenak horietan izan direlako ala bereziki toki horietan ez direlako bete protokoloak eta neurriak?

Batez ere ondorioengatik. Hasieratik tranpa egin dute, batik bat protokoloei dagokienez. Protokoloak egin ziren kon-tuan hartuta, batez ere, materiala falta zela. Protokoloak ez ziren prestatu pentsatuta langileen eta erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzea zela helburua. Hiru egoitzetan ikusi da egindako guztia ez dela nahikoa izan. Neurriek ez dute ezertarako balio izan, eta ondorioak oso larriak dira, dramatikoak, hildakoak daude. Zori kontua izan da. Birusa sartu den egoitzetan sarraskia gertatu da eta beste batzuetan ez da agertu birusa. Neurriak antzekoak dira batean eta bestean, ez dute balio izan.

Osakidetzak zuzenean egoitzetan esku hartzea eskatu duzue. Ez da logikoagoa gaixoak ospitalera eramatea? Adinekoak ospitalera eramatea saihestu da oheak ez betetzearen?

Irakurketa sakonagoa izan daiteke. Birusa etorri baino lehen ere esaten genuen: tamalez zahar egoitzetan dauden pertsonen bizitzek, bizimoduak, eta etorkizunak ez dute gainerako jendartearenak bezain besteko balioa. Tamalez, instituzioek eta enpresek onartzen dute horrelako egoera batean hainbat hildako egon daitezkeela egoitza batean eta hori onartzea oso larria da. Bat dator greban eta urte hauetan guztietan salatu dugunarekin: zergatik egoitzetan dauden bizitzak ez du berdin balio? Zure hipotesia ildo beretik doa. Instituzioek eta enpresek, behintzat, normaltzat hartzen dute horrelako egoera



ANDONI CANELLADA / FOKU

batean egoitzetan batzuk hiltzea. Egoiliarrak azkenak dira eta nabaritzen da orain esaten ari garen gauza hauetan.

Gipuzkoan hildakoen %70 egoiliarrek izan dira tarte batzuetan. Zifra deigarria.

Eta gainera seguru nago datu horiek ez daudela osatuta, ziurrenik hildakoak gehiago izango ziren. Horrek adierazten digu zein gaizki egin diren gauzak egoitzetan Gipuzkoan. Etengabe elkar ukitzen dute lan honetan eta badakigu egoiliarrek zein egoera ahulean egoten diren. Neurri guzti-guztiak ez hartuz gero, bagenekien horrela egongo ginela. Gainera, abantaila genuen, Gasteizko eta Madrilgo gertaerak ezagutu genituelako. Orduan Gipuzkoan ez zegoen positiborik egoitzetan. Hasieratik beharrezko neurriak hartu izan balira, ez ginatke egoera honetan egongo, hildakoak izango ziren, baina birusaren eragina txikiagoa izango zen.

Langile batzuk egoiliarrekin batera itxi dira egoitzan. Borondatez hartutako neurri horiek dira irtenbidea?

Ez. Erabat errespetatzen dugu langileek hartutako erabakia, baina sindikatu garen neurrian uste dugu hori ez dela irtenbidea. Txalogarria izan daiteke, baina

arriskutsua da bide hori hartzea batez ere sektore soziosanitarioan edo sanitarioan. Jendartearekin zuzenean lana egiten duten sektoreetan sistemak beti baliatu izan du langile horiek duten borondatezko lanaren kutsua, zaintzen dituzten pertsonekiko duten betebeharra. Ezaugarri horrek, beste arrazoi batzuekin batera, eragin du lan baldintza hain kaskarrak izatea sektore honetan. Sektore honetako langileek asko maite dute beren lana, baina profesionalak dira.

Osasun krisia lehertu zenean 243 greba egun zeramatzaten langileek. Orduan aldarrikatu eta salatutako guztia gainazalera atera al da orain?

Sektorea antolatzen duen sistema muga-muga zegoen eta koronabirusa muga hausteko azken ukitua izan da. Hainbeste urtean salatzen aritu garena agerian gelditu da. Esaten ari ginen nahikoa langile ez zegoela egoitzetan, lan kargak handiegia zirela; esaten ari ginen bitartekoak ez zirela egokiak; horrelako egoera baterako ez geundela prestatuta, zeren ez da lehenengo aldia halako egoera batean gaudela, jendartearen ez dute halako eraginik izan, baina egoitzetan birusak lehen ere izan ditugu.

Espero dugu jendarteari, elite politikoari eta enpresei txipa aldatzea. ●

JURGEN MEISEL, HIZKUNTZALARIA

«Estandarra ez dira elebakarrak, elebidunak eta eleaniztunak baizik»

Hainbat uste ustelak direla esatera dator Jurgen Meisel. Irakurle askok pentsatuko du jada gaindituak ditugula halakoak, baina gutxien espero dugunaren ahotik entzungo ditugu. Haurrak bi hizkuntzaz jabetzen dira eragozpenik gabe, baita hizkuntzon arteko desberdintasuna handia bada ere; umearentzat hizkuntza zailik ez dago; gizakiak kognitiboki hizkuntzak ikasteko mugarik ez du... Eta segi.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Lehen eta bigarren hizkuntzen jabe-kuntzak ditu ikergai Hanburgoko Unibertsitateko Jurgen M. Meisel (1944, Heilbronn, Alemania) irakasleak. Aspaldi du Euskal Herriarekin lotura egina, hemengo haurren elebitasun prozesuaz arduraturik, eta gurean da noiznahi, bateko jardunaldi eta besteko biltzar, elebitasunaz ez ezik eleaniztasunaz go-goetan. Azkena, UEUren eta Elebilaben ikastaroan gertatu ginen Meiselekin, orain hilabete batzuk.

Zertan gertatu zitzaizuen argigarri haur euskaldunen ikerketa?

Artean 70eko hamarkadan esaten zen haur elebidunek nahaste fase bat igarotzen zutela. 80ko hamarkadako zenbait ikerketak –hala gure lanek nola beste zenbait ikerlarik egindakoek–, hori ez zela egia erakusten zuten. Agerian denez, elebidunek noiznahi aldatzen dute hizkuntza; baita esaldi beraren barruan ere. Normala da. Elebakarraren kasuan, berriz, ezinezkoa da hori. Elebiduna hizkuntza batetik bestera jauzika ibiltzeak

ez du esan nahi, hala ere, hizkuntzak bereizten ez dituela, ezpada komunikazio estrategia jakin bat baliatzen duela! Urte eta erdiko haurrak ere horretarako gauza dira, bi hizkuntzetako osagaiak baliatzen dituzte enuntziatu berean, baina ez dute horrelakorik egiten haien aurrean dagoen pertsonak bi hizkuntzak ez dakizkienean.

Zer ondorio segitzen da hortik?

Haurrak eragozpenik gabe jabetzen direla bi hizkuntzaz, zeinahi direla ere. Ikusia zuen hori lankide batek Kanadan frantsesa eta ingelesa-rekin, baita beste batek ere irlandesa-ingelesarekin. Guk, alemana-frantsesarekin... Baina beti, hizkuntza berdintsuak ziren, zuztar berekoak. Horregatik jo genuen bi hizkuntza zeharo ezberdinak ziren kasua ikertzera.

Eta, emaitza...

Gauza bera dela, haurrek berdin ikasten dituztela jokoan diren bi hizkuntzak, hauen arteko kontrastea txikia izan, nahiz handia.

Elebitasun guztiak berdina al dira? Bai.

Zalantzarik gabe esan diguzu.

Bai. Haurrentzat, jaiotzatik, ez dago hizkuntza zailik, hizkuntza guztiak berdina dira horretan. Joan deneko 30 urtean asko ugartu dira ikerketak batean eta bestean. Gogoan dut inuiten finlandierari buruzko ikerlana, adibidez, eta beti bat eta bera da emaitza: haurrak hasiera beretik dira hizkuntzak ezberdintzeko gai. Gaur egun, askoz ere ikerketa zorrotzagoak egiteko gai gara, eta bada-kigu, esate baterako, jaio eta astebetara ere haurrak diferente erreakzionatzen duela hizkuntza batean eta bestean. Zergatik? Jaio aurretik ere, umetokian bertan entzuten duelako. Ez dute ulertzen, baina umetokiko haurren sistema fonologikoak aditzen dituen bi hizkuntzak bereizten ditu.

Elebitasunaz ari gara, baina eleaniztasuna da oraingo eguneko gorabehera: zenbat hizkuntza beregana litzake haurrak aldi berean?

Zaila da horri erantzutea. Gure sistema kognitiboak ez luke mugarik, nik dakidala, bederen, baina nekez eman nezake

Gure sistema kognitiboak hizkuntzak ikasteko mugarik ez luke, nik dakidala, bederen, baina nekez eman dezaket frogarik”

frogarik. Hala ere, bada muga praktikorik: esposizio denbora. Esposizio denbora bat behar da. Zorigaitzez, ez naiz esposizio horren muga zehazteko gai, horixe lantzen ari baikara oraintxe. Eta, badiotsut, zaila da hori jakitea. Badira zenbait ikerlan haur elebakarren inguruan, eta haur batzuetatik besteetara, hamar punturen aldea ere badago esposizioari dagokionean. Alegia, guraso batzuek beste batzuek baino hamar halako hitz egiten dute beren haurrekin. Nola definitu, beraz, zein den araua, zenbatekoa behar duen esposizio horrek?

Oraintxe, gai horixe ikertzen ari zaretela esan diguzu...

Bai... Esposizioari dagokionean, bi hizkuntza baldin badira jokoan, %50eko denbora dutela biek ere, ez dago arazorik. Esposizioa %30ekoa denean, hau da, jokoan hiru hizkuntza diren kasuan, esposizio ehuneko hori ere aski luke haurrak, hizkuntza horiez ama-hizkuntza balitu bezala jabetzeko. Uste dut esposizioaren muga %20-25ekoa izan litekeela. Hori baino esposizio txikiagoa izanez gero, ikusi egin behar! Eta, bestalde, haur batzuetatik besteetara ere bada aski diferentziarik. Batzuek errazago eta azkarrago ikasten dute beste batzuek baino, nahiz eta denak ere ongi hitz egitera iristen diren.

Hortaz, hiru hizkuntza batera bai, lau hizkuntza gehiegi litzateke.

Muga hor dagoela ematen du. Esposizio denbora da arazoa, ez haurraren gaitasuna, ezen badirudi gure sistema kognitiboak ez duela mugarik. Badira hogeitaz hitz egiten dituzten pertsonak. Ez dakit hizkuntza guztietan ongi hitz egingo duten...

Zer ekarri egin dio haur euskaldunen gaineko ikerketak hizkuntza jabekuntzari?

Euskarak erakutsi digu hizkuntza ez indoeuroparra izateak ez dakarrela elebitasun arazorik. Hizkuntza guztiak berdina dira, eta ondorio horretara iristea ez da debaldekoa, oso garrantzizkoa baizik. Besterik da gramatikaz, morfologiaz edo bestez ari bagara, euskara hizkuntza indoeuroparrak ez bezalakoa baita, aditz sistema konplexu horri dagokionean berden.



Aditz sistema konplexua da euskararena? Ustekoa nuen oso zela erraza!

Erraza, euskaldunarentzat! Konplexua, niretzat! Saiatu nintzen ikasten, baina ezinezkoa gertatu zitzaidan: aditzaren, subjektuaren eta objektu zuzenaren edota zeharkakoaren arteko komunztadura hori, izan ere! Ezin izan nuen ikasi. Aldiz, haur euskaldunek ez dute problemarik. Marijo Ezeizabarrenak badu ikerketa interesgarririk horri dagokionean.

Hizkuntzaren jabekuntzari buruzko ikerketei behar besteko garrantzia ez zaiela aitortzen aditua diet han-hemengo ikerlariei.

Ados naiz kexu horrekin. Hara, munduan, gizon-emakume gehienak elebidunak dira, Unescoren definizioaren arabera, bi hizkuntza erabiltzen dituzte egunerokoan. Psikolinguistikan ari diren lankideek ere horixe esaten digute, alegia, mundukoak elebakarrak bagina bezala hitz egiten dela bazterretan. Ustea aldatzen ari da, dena den. Oraingo egunean, duela hogeitau urte baino hobeto gaude uste horri dagokionean. Linguistarekin hitz egin, psikologoarekin hitz egin, eta denek onartuko dizute elebitasunaren garrantzia, baina, egiaz, ez dute horren arabera jokatzeko. Badiotsut, dena den, gauzak aldatzen ari dira.

Hemendik atzera, geroan, nondik eta nora jo beharko lukete hizkuntzaren gaineko ikerketek zure ustez?

Esate baterako, hizkuntzaren esposizioaren input hori ikertu beharko luke. Elebitasunari buruzko ikerketetan ere politikoki zuzena izan beharra nagusitzen ari da. Elebakarrak hartzen dituzte estandartzat, baina zergatik konparatu behar dituzte beti gauza guztiak elebakarrekin? Estandarra ez dira elebakarrak, elebidunak eta eleaniztunak baizik. Ni, hasteko, horretan ari naiz joan deneko 30 artean, beren haurrentzat hezkuntza elebiduna nahi duten gurasoei lanean. Hala ere, dudatan dira beti, galdera berak egiten dituzte beti: "Ez al ditu hizkuntzak nahastuko? Ez al da atzean geratuko?". Eta esan beharrean zaude: "Hara, elebakarrekin alderatuz gero, haur elebidunak hobeto ari dira, emaitza hobeak dituzte hizkuntzetan eta gai guztietan". Dena dela, gaur egun, Europan, arazoa ez da elebitasuna, eleaniztasuna baizik.



Elebitasuna lehen, eleaniztasuna orain?

Bai. Gurasoek egiten dizkidaten galderak horixe adierazten didate: "Turkiar emakumea naiz, senarra errusiarra dut, Berlinen bizi gaituzu, alemanez jakin behar dute, badakit hori, baina nahi dugu gure seme-alabek beren aitaita-amamekin beren hizkuntzetan hitz egitea". Badakite alemanez ere jakin behar dutela, han bizi direnez, baina baita arabasoen hizkuntzak ere. Hortaz, betibetiko galdera: "Zein da gutxieneko esposizio denbora?", eta ez dakigu galdera horri zuzen eta artez erantzuten. Faktoreen gaineko ikerketa gehiago behar ditugu, zerk errazten duen hizkuntzaren jabekuntza, zerk zailtzen duen jabetze hori.

Badakigu sistema kognitiboa malgu dagoen, haurtzaroan, hizkuntzez jabetzeko gaitasun handia dugula, badakigu orain dela 30 urte uste genuena baino askoz gauza gehiago egiteko gai garela. Hala ere, alderdi batzuk zorroztu behar ditugu. Badakigu, esaterako, adimenak ez duela garrantzirik, buruargiak izan edo ez, berdin ikas ditzakegula bi edo hiru hiz-

kuntza. Esposizio denbora da faktorea, nahiz eta ez dakigun gutxieneko denbora zehazten. Elebidunen kasuan ez da arazorik, baina eleaniztunen kasuan? Ikergaietako bat duzu, ez bairik gabe.

Harrigarria da, eta ez da, gurasoek, han nahiz hemen, kezka berak dituzte, galdera berak beti.

Bai, eta askotan galdera horiek egiten dituzten gurasoak jakinaren gainean daude, badituzte galderen erantzunak, baina "lagun batzuek esan digute" hasten direnean, orduantxe kito! Horretan okerrenak pediatrik dira. Badirudi sendagileek iritzi bat izan behar dutela elebitasun gaitetan. Baina hizkuntza jabekuntzaz ezer ez dakitenez, hizkuntza garapenari buruzko arazoren bat denean, "aldi berean bi hizkuntzarekin ari da eta" diote lehen-lehenik. Alabaina, hizkuntza garapenari buruzko arazoak berdinak dira haur elebakarretan nahiz elebidunetan. Inguru elebakarrean, elebitasuna planteatzen denean, gurasoak zalantza artean bizi dira. Inguru elebiduna denean, galderarik ez dago, euren ebidentzia propioa dute! ●

Haurrek berdin ikasten dituzte jokoan diren bi hizkuntzak, hauen arteko kontrastea txikia izan, nahiz handia

ZUMETAREN ARGIAKO LAMINAK



TXOMIN TXUEKA, 2007


Historia ulertzeko beharrezkoak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Jose Luis Zumetak badu esanahi berezi bat ARGIA-n. Momentu puntaletan egin bada ere lotura zuzena, haren estiloak, haren kolo-
loreek badute zer esana hedabidearen ibilbidean. Euskal kulturaren iruditerian ezaguna, GAUR taldeko sortzaileetako bat, Ez Dok Amairun ibilia, Mikel Laboaren azalen egilea, beste hamaika liburu-azal eta afixaren sortzailea...

JoxAnton Artzeren txoriak marraztu zituen Zumetak 1973an, *Laino guzien azpitik... sasi guzien gainetik* lanari irudia jarritz. 2002an ARGIA-rentzat espresuki egindako laminan nolabaiteko jarraipena eman nahi izan zioten bi artista usurbildarrek ia hogeita hamar urte lehenago egindako lanari. Ordurako euskal munduan hain sinboliko bilakatutako Artzeren *Txoria Txori* poema oinarri hartuta (1969an argitaratutako *Isturitzetik Tolosan barru* liburuan aurki daiteke) pintatu zuen txoria. Norberak bere askatasun osoz bere interpretazioa egiteko moduan. XXI. mende hasierako Durangoko Azoka hartan banatu zuen ARGIAk bere harpidedunen artean lamina.

Eta hedabidearen 90. urteurrenaren ospakizunerako beste irudi



bat ere sortu zuen margolariak. 2009a zen eta Bertsozale Elkarteak ARGIAri eskaini zion Bertso Txapelketa Nagusiko sari bat ematea. Zerbait berezia eman nahi sari gisa, eta Zumetari eskatu zioten koadroa egiteko. Jon Maiak jaso zuen saria. Margolan honekin, eskuz egindako 200 serigrafia egin zituen Zumetak, eta honen azken aleak oraindik eskuragai daude ARGIAren Azokan (azoka.argia.eus).

2008ko urtarrilaren 13ko datarekin argitaratutako astekarian Amets Arzallus Antiak margolaria-ri egindako elkarrizketa irakur dezakezue edo baita Xabier Gantzarainek 2017ko urtarrilaren 19ko aldizkarian Zumetaren pinturaren eta ibilbidearen inguruan idatzitako artikulua ere, Zumeta zer eta nor izan den sakonago ulertzeko.

Gure kulturaren azken hamarkadetako iruditeria konprenitzeko gakoetako bat, gakoetako bat izan den bezalaxe ARGIArentzat ere. ●

HEDABIDEON AUZOLANA

LEHIAZKO KAZETARITZAREN ALTERNATIBA

Honezkero ohartua izango zara ARGIAk beste hedabideek egindako kazetaritza lanei oihartzuna ematen diela eguneroko jardunean, naturaltasunez. Hainbat bide ditu horretarako: batetik, Herrialde Katalanetako *La Directa*, Espainiako Estatuko *Pikara Magazine*, *La Marea* eta *El Salto*, Aragoiko *AraInfo*, Alemaniako *Redfish* eta AEBetako *Roar Magazine* hedabideen artean harreman adostua dugu elkarren edukiak itzuli eta zabaltzeko. Bestetik, herri ekimeneko komunikabideok geure buruari ezarritako lizentzia librea aldarikatu eta praktikara eramaten dugu, egiletza aitortuz informazio horiei oihartzuna ematen diegu ARGIAko euskarrietan. Hirugarrenik, ARGIAren webgunean *Eragileen Plaza* atala daukagu, eta leiho horri esker, bertan izena emandako hedabide eta eragileek argitaratzen dituzten informazioak automatikoki erakusten ditugu ARGIAren webguneko orri nagusian...

Gaurkoan, balioan jarri nahi dugu kide garen hedabideen nazioarteko sarea. Elkarlan harreman adostua dugun nazioarteko sarean, oinarritzko filosofia partekatzen dugu: kazetaritza proposamen eraldatzaileei ahotza emateko eta indar ekonomiko eta politikoak fiskalizatzeko erreminta moduan ulertzen dugu.

Kide garen hedabideon artean partekatzen ditugu gure irakurleentzat interesgarri izan daitezkeen edukiak, eta formula honen bidez iristen gara lurralde eta gai zehatz batzuetara, bestela, oso zaila genuke gutako bakoitzak gure baliabide hutsez hori lortzea. Medio bakoitzaren eguneroko lanak posible egiten duen neurrian, albiste iturriak, ideiak eta informazioak ere partekatzen ditugu, eta egin izan ditugu hainbat lan elkarlanean, batera argitaratu ditugunak.

Lehia lehenesten duen negozio eredu honek bultzatzen du besteak baino lehen iristea, eta konparatzen aritzea nork dituen bisita eta klik kopuru gehiago webgunean... baina lehiazko eredu horren aurrean, medio bakoitzak besteari bere edukiak zabaltzen laguntzeak indartzen du kazetaritzari buruzko beste ikuspegi bat: informazioa guztion ondasuna da eta ez salgai huts bat, eta kontatzen ditugun interes orokorreko historiak zenbat eta jende gehiagorengana iritsi hobe da, historia horiek ezbaitira norberaren jabegoa.

Egunoa bezalako momentu zailetan, kide ditugun hedabideon arteko sarea inoiz baino gehiago atara nahi dugu plazara eta gonbidatzen zaituztegu hedabide hauek irakurtzera, jarraitzera eta babestera. Elkar babesten duten kazetaritza ekimen gehiagoren alde! ●

GERRARI BURU EGITEKO BARATZEA SORTU



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gaur bizi dugun ez bizitze hau, iraute hau, datorkigunaren ataria besterik ez dela gero eta maizago entzuten ari naiz. Kontuak dira orain jendartearen eman-hartuaren aukera bakarra. Gaur goizean janari dendan kuadrilako hiruk topo egin dugu pasi-logurutze batean eta koadrilako laugarren baten amaren heriotza izan dugu hizpide. Denon bihotzeko ama izan zena, eta bazirudien gauza txar batean ari ginela, minutu pare bat besterik ez dugu hitz egin eta Polizia azalduko ote zen beldurrez bezala jokatu dugu. Utikan egoera hori...

"Datorrena datorrela,
hel diezaiogun baratzeari.
Gero gerokoak. Baina
geroa beroagoa izango
da baratzedunarentzat,
samurragoa"

Kontuak alde batera utzi, eta hel diezaiogun baratzeari. Izan ere, baratzea da aukera bat, ia bakarra. Bigarren Mundu Gerran, 1943an, Garaipen Baratzeak sortzeko eskuliburua argitaratu zuen James Burdettek AEBetan. Gakoa sinplea zen: bakoitzak bere etxean edo inguruko lur publikoan baratzea lantzea. Janaria sortzea ingurukoez: sendia, aldameneko, auzoa, behartsua... Baratze haiek komunitatearen eta herritarren bizitza hobetu zuten, eta gerra amaitutakoan ere lagungarri izan ziren. Garaipen Baratzeak.

Liburuxka hori oraindik ere eredugarria da. Gaur, gudua baino okerragokoa bizitzen ari gara eta, kontuak alde batera utzita, datorrena datorrela, hel diezaiogun baratzeari. Gero gerokoak. Baina geroa beroagoa izango da baratzeduna-



rentzat, samurragoa. Jarrera horri heldu eta egokitu egin dute liburuxka hura; hona emaitza.

Baratzea hutsetik sortu nahi duenarentzako aholkuak. **Baga:** ingurua eza-gutu. Ez da gauza bera Bakion, Angelun Eskuernagan edo Abaurrean baratzea egitea. **Biga:** lurra ezagutu. Edozein dela ere, ongarri naturalak, eta ahalik eta one-nak erabili. **Higa:** zerrenda zorrotz bat osatu, zenbat janari beharko duzu? Doitu zure lana, zenbat uraza jango dituzue? Hamabostero 24 edo 48 letxu txiki landatuko ditut. Mozkin batzuk kontserbatzeko modukoak dira; ikasi horretarako bide egokienak. **Laga:** behar dituzun landareak landatzeko erosi edo etxean hazitiki sortu? Landare bakoitzak bere zikloa du eta erein eta hilabetera jango duzu errefautxo, baina urtebetara porrua. Plangintzarako garrantzitsua da. **Boga:** baratze eremuaren banaketa egin: tau-

lenak, loreintziak, bazterrak... Landareak elkarren aldamenean, bata bestearen laguntzaile bezala zeintzuk ariko diren ikasi. **Sega:** sasoian sasoiko lanak egin. Urte garai bakoitzean egin beharreko lanak zehaztu; egutegia garrantzitsua da, baina giroa eta eguraldia garrantzitsuagoak. **Zai:** hasten hasteko inguruan landareak saltzen dituenari galdetu eta erosi. **Zoi:** luarrak egin, nahitaezkoa. Etxeko eta baratzeko hondarrak ongarri bihurtu. **Bele:** ez ahaztu laguntzaileak: polinizatzaileak, txoriak, eta izurriteei tamainan eutsiko dieten animaliak. Zer egin beharko dugu baratzerak erakartzeko?

Zauden moduan zaudela, beti izango da garaipena baratzea. Zerori garaituko zara. Zeure burua garaitu. Zailena eginga izango duzu. Gainontzekoa, poetak esan zuen bezala, saguzarraren eguerdiko doministikua izango da. Huskeria, horixe: gerra. ●



SARDE SARDEXKA ELKARTEA

ELIKADURAREN ETA LABORANTZAREN ARTEKO ZUBI LANEAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2014an sortu zuten Sarde Sardexka elkarteak Jenofa Irubetagoyenak eta Gabrielle Arrese-Igorrek Ezpeletan. “Elikadurarekiko apustu berak zuzenean lotzen ditu sardea eta sardexka”, diote beraien webgunean. Ekoizleekin, kontsumitzaileekin, eskolekin eta oro har gizarteko esparru guztiekin elikaduraren gaia lantzen dute, beti ere elikagaien jatorririra eta ekoizpenera joz eta osasunarentzat nahiz ingurumenarentzako modu jasangarriak bultzatuz. Eragile eta herritarrak harremanetan jartzen dituzte, kalitatezko eta ardurazko elikadura osasuntsurantz laguntzeko.



SENTSIBILIZATZEA ARDATZ

Enologoa da Irubetagoyena, eta ardoaren munduan egin zituen lehen urteak, Frantziako Estatuan hasieran eta Txilen gero. Baina handik bueltatzean, sotoak utzi eta profesionalentzako formazio saioak proposatzen hasi zen. Partikularrentzat animazioak ere egiten zituen, eta pixkanaka eskoletan ere dastaketeekin lotutako ekintzak egiten hasi zen. Orduan egin zuen topo egungo bere ki-dearekin: “Bera ordurako hasia zen bere kabuz lanean elikadurarekin lotutako sentsibilizazio tailerrak eskoletan ematen, eta horrela elkar ezagutu eta pixkanaka elkarteak sortu genuen”.

Publiko zabal bat elikaduraren eta laborantzaren inguruan sentsibilizatzea da elkartearen helburua gaur egun, eta

eskoletan eta haurrekin egiten dituzten ekimenez gain zerbitzu gehiago ere eskaintzen dituzte beste zenbait alorretan: tailerrak elkarrekin, formazioak ekoizleekin, etxaldeak ezagutzera emateko aholkularitza edota festetan jolas, tailer edo animazioen eskaintza. “Guk elikadura osotasunean ulertzen dugu: lotura egiten dugu osagaiekin, baita ingurumenarekin, ondare kulturalarekin, kontsumoaren alorrekin, zentzuen piztearekin... ere”. Elikagaien bueltan diharduten aktore guztiak harremanetan jarri eta tokiko ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzea dute asmo.

JOLASA BIDE

Jokoak ere sortu dituzte eta “Maleta ludopedagogikoa” osatu dute. Jolas mo-

duan planteatutako maleta honen bidez elikadurarekin zuzeneko harrenanean dauden beste esparruak lantzen dituzte haur eta gaztetxoekin: ingurumena, kontsumoa, kultur ondarea eta osasuna.

Aurten *Lur'istorioak* izeneko aktibitate berria ere abiatu dute familientzat. Etxalde batean jendea bildu eta tailer ezberdinak egiten dituzte: bata ekoizlearekin produktua nola ekoitzi ezagutzeko, bestea Sarde Sardexka elkarteak kideekin produktuak nola dastatu ikasteko, eta azkena Biharko Lurraren Elkarrekin laborantza biologikoa jolas bidez lantzeko. Koronabirusaren krisiarekin ekimen hori momentuz bertan behera gelditu bada ere, uda partean berriz martxan jarri ahal izatea espero dute. ●

Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

eko lurra

Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

“

*Unibertsaltasuna, gure
herrian behintzat, gureari uko
egitea bezala ulertzen da”*

OLATZ ZUGASTI MUSIKARIA



Hernani, 1965. Kantaria eta harpa-jotzailea. Benito Lertxundiren alboan egin du bere ibilbide musikala. Alta bada, bakarka ere bide oparoa osatu du. *Kantu baten bila nabil* (Elkar, 1991) izan zen bere lehen lana eta *Orion zuzenean* azkena (Kantaita Enea, 2019). Iraganaz eta orainaz jardun dugu. Esperientzia interesgarri baten lekukotasuna duzu solasaldia.

 MIKEL ASURMENDI
 DANI BLANCO

2015ean, mantso-mantso, zerbait berria hasi zen niretzat, nire taldearekin kanta zuzenean aurkezten hasia. Halako batean Orion egin genuen, herriko kiroldegian. Teknikariek grabatu zuten, pasa zidaten eta txukuna zela iruditu zitzaidan. Ordurako ari nintzen pentsatzen hurrengo diskoa nola landu, bilduma bat egitea nuen asmoa, egundo egin gabe nintzelako. Ez nekien bilduma nola egin eta azkenik *Orion zuzenean* egin dugu. Zuzenean eroso ari naiz, musikariak oso profesionalak dira, prestutasun handiz ari dira eta eskaintzen didaten ziurtasunak ere laguntzen dit une hunkigarriak bizitzen zuzenean. Benetan babestua sentitzen naiz”.

Orion zuzenean diskoa ez zegoen alde zuretik pentsatua, beraz.

Bada, ez. Askok esan didate: zer soinu ona duen! Mikrofonoak zuzenekoak dira, emanaldia disko bihurtzeko asmoa izan bagenu, agian beste materialez egingo genuen, potentzia handiagokoez. Izan ere, gustatuko zitzaidan publikoaren txaloak eta hurbiltasuna hobeto jaso izana. Alde horretatik bere hartan utzi dugu, eta kante egin dezatela lana.

Kantu baten bila nabil (1991, Elkar) izan zen zure lehen diskoa. 30 urte beteko ditu laster. Nola gogoratzen duzu garai hura, gaur egunera etorrita?

Egia esan, garai hartan neuzkan erreferentziak ez ziren gaur egun dauzkadanak inondik inora ere, aukeratutako musika tresnak ere baldintzapean jartzen ninduen, baina sentitzen nuen, beste alde batetik, mundu zabala nuela aurrean esperimentatzeko, hori oraindik ere sentitzen dut. Benito eta bere belaunaldiko kantariak eta gero, musika zeltaren eraginak iristen zitzaizkigun. Halaber, beti argi izan dut gure hizkuntzan kantatuko nuela. Batzuentzat muga izan daitekeena beste batzuek nortasun gisa ikusten dugu munduari eskaintzeko, izan ere, nortasuna esparru guztietan ona baita, eta arte munduan, musika barne, zer esanik ez. Gaur egun, nire musika erreferentziak orduan baino ugariagoak dira. Hor jarraitzen dut gustuko ditudan soinuetatik edo aireetatik zerbait hartu eta nire baliabideekin –tresnak, ahotsa, hizkuntza, ideologia, filosofia...– erantzun bat ematen, kanta forman.

Olatz Zugasti abeslaria eta harpa-jotzailea. Ezohikoa gurean.

Hemen ezohikoa, Irlandan ohikoa. Be-

nitoren *Altabizkar/Itzaltzuko bardoari* diskoaren garaian, 1981ean, Irlandatik heldu ohi ziren diskoak lortzen genituen nola edo hala, Alan Stivellenak besteak beste. Haren disko bat eskuratu nuen eta liluratuta geratu nintzen. Berak ematen zion berezko aura horrekin, ez hain tradizionala, Irlandan entzun ohi dena. Berezkota zen, kreatibitate handikoa. Berak berreskuratu zuen harpa zeltikoa, bere aita luthieria zen, aita sortutako harpa batekin hasi zen...

Harpa ikasi nahi nuen, harpa zeltikoa zuen pertsona batekin topo egin nuen eta utzi egin zidan. Autodidakta modura hasi nintzen, kasetetan grabatutako Stivellen musika errepikatzen nuen, aurrera-atzera, haren piezak ikasi arte. Orduan hemen ez zegoen harpa zeltikoaren ikasketarik, baina bai klasikoa, eta horrela hasi nintzen kontserbatorioan.

Diskoko kanta askoren letra-egilea zara. Zure alde ezkutua al da? Edo agian, neroni ez naiz horretaz ohartu.

Alde ezkutua? Ez hainbeste. Ezkutuan ez, suge bat bezala egon dira letrak, agian kamuflatuta... [irribarretsu]. Orain arte nire buruari zuzenean jotzeko aukera gutxi eman diodanez, baliteke kanten letrak diskoan geratu izana, jendeak irakurri ez izana; egia esan jendea ez dio gehiegi axola nork idatziak diren kanta. Orain, zuzenekoetan kanta aurkeztean, bada, kantaren sorrera kontatzen duzu eta agian orain ageriago geratzen dira.

Sena kantaren aurkezpenean, unibertsaltasunaren tasun-ari kritika egiten diozu. Kezkatzen zaitu herri honen egoerak?

Ez diot unibertsaltasunari kritika egiten, kontua da nola ulertzen den unibertsaltasuna! Unibertsaltasuna, gure herrian behintzat, gureari uko egitea bezala ulertzen da. Ez dago ezer unibertsalagorik norberaren aitortza baino, norberaren herriaren aitortza baino. Beraz, unibertsalaren aldarrikapenak oso okerrak dira sarritan, izaera zerutiarra balute bezala. Zentzu horretan, oker planteatutako aldarrikapen horiek gure herriaren ukapena adierazten dute. Haatik, kanta horien hitzak idazteko beharra izan dut, nire ideiak adierazteko modua da.

Benitorekin batera, horren defendatzaileak zarete nolabait. Nola sentitzen zarete rol “politiko” horretan?

Gu nola sentitzen garen gutxienezkoa da.

Politiko esan duzu, baina kanta batek ez du eragiten politikoki, pertsonak hunkitzen eta emozioak sorrarazten ditu, kanta batek ez du ezer aldatzen. Beste batek okupatua izateko zorigaitza izan du herri honek eta hori salatzea dago-kio. Nazioarte osoan egin diren hainbat eta hainbat erabaki dira adibide, eta hain zuzen ere, erantzun horren gabeziak narama kantetan gai hori azaleratzera, jakitun izanik kantez ez dutela afera horretan ezer aldatzeko ahalmenik.

Zer aldatu da frankismoaren garaitik garai honetara? Artista behartua al da rol hori hartzera?

Okupaturik jarraitzen dugu, baina orain herriaren ustezko ordezkari politikoen babesarekin. Euskaldunon zapalkuntza, gure Nabarrako Estatuaren okupazioa, mendeetan eragindako eraso basatiaren ondorioa da. Eraso horien oinarrietan eraikita dago gaur egun ikusten duguna, edo ikusten ez dena. Adibidez, 70eko hamarkadan normaltasun osoz burutu zen erregimen baten estetika operazioa, non kriminalik handienak bat-batean demokrata bilakatu ziren. Euskal Herriaren erantzun politikoak oso bestelakoa izan behar zuen. Hala ere, berau aldarrikatzen dugun heinean herria bizirik dago, baina aldarrikatze horrek jarrera

bat eskatzen du, salaketa ere inplikatzeko du, okupazioaren salaketa, baita etxe barrutik hori laguntzen dutenena ere. Ba-koitzak bizitzea tokatu zaion horretatik egiten du guztia, baita kantariak kantak ere, baina ez du inolako obligaziorik.

Kantaren bila aritzeak dakarren emaria al da *Orion Zuzenean* diskoa?

Bai... Irakurri nuen diskoari buruzko zure iritziak zer pentsa eman zidan. "Hitz asko ote dauden?", pentsatu nuen. Nire aitak hori leporatzen dit. Agian arrazoi du. Kanta xumeak estimu handian ditut, hitz gutxiarekin doinuek zu "eramatea" lortzen dutenak, mugitzea eta hunkitzea era batean edo bestean, horiek maite ditut. Tira, nire kezkek ekarri naute disko honetara. Bai, hori da emaria.

“

Ez dago ezer unibertsalagorik norberaren herriaren aitortza baino, beraz, unibertsalaren aldarrikapenak oso okerrak dira sarritan, izaera zerutiarra balute bezala”

“Kanta batek ez du eragiten politikoki, pertsonak hunkitzen eta emozioak sorrarazten ditu, baina kanta batek ez du ezer aldatzen”

Besteak beste, hona *Mezularia* kantaren hitzak: “Gauak zuen doinu hori, idatzi arazia mezu bat bailitzan zure eskutik zait iritsia”. Nor dago kantaren atzean?

Hitzen atzean nire alaba dago. Berak ez dakit badakien ere... Gratxina piano jotzen ikasten hasi zen, baina ez zuen aparteko nahikaririk. Halako batean esan nion: “Ez ezazu gehiago jo, utzi”. Eta handik bolada batera bere kabuz hasi zen jotzen. Chopinen *Nocturnoa* jotzeari eman zion jo eta ke,



obsesio batek hartuta bezala, presiotik askatu bezain laister. Mezu baten eran ulertu nuen: pertsona bizitzan aurrera egiteko behar duen adimenarekin etortzen da eta bere kabuz aurkitu behar ditu bidea eta baliabideak, askatasunez erabakiak hartuz.

“Lorraz argia duzu nigan utzia...”, dio kantak.

“... uhinen gaindi zoazen mezularia”. Gratzina da bai, arraunean ibilia. Ama batek asko jasotzen du seme-alabengandik.

Aita eta ama musikari ezagunen alaba izanda, ez zuen erraza izango bide egitea.

Bai, bere borrokatxoa izan du, baina berak ez du erakusten alde hori, momentuz gurekin ari da, berak ikusiko du zein bide landu, urratu....

Gratzina zer da zure jardun musikalean?

Inongo esparruan baino hobeto moldatzen gara musikan. Bestela, bi sumendi gara... Gratzinak albo batera utzi zuen musika, ez guztiz, bigarren plano batean. Ikasketen zereginetatik libre sentitu zenean, bere kabuz hasi zen berriro ere musika lantzen, bere gustuko kantak jotzen. Isilpean izan zen, eta halako batean teklatu-jotzaile bat behar nuela esan nion. Konturatu nintzen akordeak eta sekuentziak berehala hartzen zituela, koruak ere egin zitzaizkela jo bitartean. Gustura ari da.

Alaba, zu zeu. Itxaro Borda eta Henriette Aireren hitzak dira diskoan, besteak beste. Diskoak badu emakume airea...

Baina testuak ez ditut emakumeak direlako hautatu, baizik eta oso aproposak direlako nik kantatzeko. Arrazoa hori da.

Zein iritzi duzu feminismoaz?

Galderak izaera politikoa du eta erantzuna ere klabe politikoa ematen saiatuko naiz. Estatu baten barruko edo nazioarteko aferak sozialei ezin diezu aurre egin, zure estatua, zure nazioa okupaziopean baldin badago: arrazoi horrengatik feminista –langile, enpresari, hezitzaile, hizkuntzalari, musikari...– euskaldunek ezin diote beren estatuari legeak aldatzea aldarrikatu, euren herriaren nazioarteko independentzia eskubidea, oinarriko eskubidea eta beste eskubide guztien aurrekoa kendu baitio inperialismoak. Beste era batera esanda, herri okupatzailearen feministak herri okupatuaren feministen zapaltzaileak dira! Espainia-

ko Kongresuan eta Gobernuan ba omen daude feministak: Euskal Herriari bere autodeterminazio eskubidea urratzen eta ukatzen diote, izaera bera ukatzen diote, inperialistak baitira feminista horiek ere. Orduan, nori aldarrikapena? Ez nago joko horretan inondik inora. Okupatzailearen politikak hobetzerak jokatzen badut, nahi edo ez, okupazioa legitimatzen ari naiz.

Brendan Graham irlandarraren jarraitzailea zara, haren eragina agerikoa da zure ibilbidean. Musika zeltaren maitalea zara. Diskoak, hala ere, baditu bestelako erritmo eta doinuak ere. Estiloen bila ari zara betiere.

Nire kantagintza ez da estilo bakar bati lotua izan, badaude zertzeladak handik eta hemendik hartuak... Garai batean, Euskadi Irratiko *Kantaita* saioa egiten nuenean, *Munduko musikak* deiturikoek asko eman zidaten. Biziki ikasi nuen doinu eta kultura haietatik, herrietatik, batzuk munduan agertzen ez direnak. Haiengandiko eragina jaso dut noski. Bob Dylan, Suzanne Vega, Judy Collins edota Leonard Cohen ere gustukoak ditut, besteak beste, baita Mediterraneo aldetik heldu zaizkigun doinuak ere.

Benitorekin 40 urte daramazu jardunean, zure kasa ere bai. Pentsatu duzu inoiz, bera gabe bestelako musikaria izango ote zinatekeen? Zer eman dizu Benitok? Zerbait kendu al dizu?

Kantu baten bila nabil diskoa egin nuenean –Benitorekin aspalditik ari nintzen ordurako– bi emanaldi egin nituen, bat Getxo Folken, bestea Donostiako Antzoki Zaharrean. Besterik ez. Ordurako bidea egin nuen berarekin, bera oso tinko eta indartsu zebilen. Nirea ez nuen hain erraz ikusten eta albora utzi nituen zuzenekoak; ez nuen nire burua ongi kokatzen. Nire gauza izan zen, neuk hartu nuen erabakia. Onestasuna falta zitzaidala sentitu nuen, ez dakit ere hala den, nola esan... Gehiegi nengoen argitan, une hartan oso ezagun egin nintzen, eta ez nion nireari eroso ekiten –nire izenean eszenatokian, “ez naizen hori” erakutsi behar banu bezala. Ez nion horri neurria hartzen jakin. Behinola, nire eta beraren kontzertuek kointziditu izana gogoratzen dut, niretzat lehentasuna zen berarekin egiten nuen lana, oso gustura egiten nuelako. Sentitzen nuen ekarpen bat egiten nuela, Benitok kontuan hartzen zituela nire emanak. Beraz, zer kendu? Deuski

ez. Bestelako erabaki bat hartu izan banu, beste zerbait garatuko ote nuen nire ibilbidean... Gustura nago hartu nuen erabakiarekin. Orain nire kasa areago aritzeko unea dela sentitzen dut.

Zure azken diskoaren ekoizpen lanetan aritu da Benito Lertxundi, baina atzean.

Zuzenekoan bera entzule egon zen, gero diskoaren produkzioa egin du. Berak esan zidan ongi zegoela eta diskora eraman behar zela. Nire ibilbide guztian ez dut erabili nahi izan Benitoren presentzia. Berari musikari askok eskatzen diote euren diskoetan parte-hartzea. Nik ez dut horretan “erori” nahi izan. Nire ibilbidea egin dut, nire gorabeherekin eta ondorio guztiekin. Beti pentsatu dugu bakoitzak berea defendatu behar duela. Diskoan bera egon gabe, haren hitzak eta kanta batzuk ere ekarri ditut diskora.

Hernani eta Orio herriak ezagutzen dituzu. Zein da aldea? Zein kontrastea?

Izugarria. Kilometro gutxitan kontraste handia dago. Etorri baino lehen ere, Benitorekin harremanetan hasi nintzenean, esaten nuen: “Itsas herri bat, arrantza-lea... ez soilik kostaldekoa. Hernaniar bantentzat, niretzat behintzat, kultura hori aurkitzea exotikoa izan zen”. Izan ere, eliteko Arraun Elkarteak dago, arraunaren inguruan sortzen den giroa aparta da. Kultura berezi bat.

Neguko arratsalde batean kantaren historia polita da. Hernanin gertatua. Harpa-jotzaile batek –zuk zeuk– beste harpa-jotzaile batekin topo egiten zuenekoa.

Bai [irriak...]. Ikusten ari naiz mutiko hura. Bi sartu ziren etxeko atarian, haietako bat oso zakarra zen, bestea berriz goxoa, bizia eta musika zalea zirudien, harpa nola jotzen den jakin nahi zuen. Harrituta bera eta harrituta ni.

Olatz Zugasti & Benito Lertxundi bikoaren lana entzun du inoiz?

Guk ez dugu alde aurretik bidea bilatzen. Aukera hori sortuko da unea heldu bada. Ez dugu esaten “hau egingo dugu...”. Ez gara irizpide horretakoak. Nire zuzeneko kantaldietan Benitoren *Itsas ulu zolia* diskoko Marruz olak hirian ematen hasi naiz. Hernanin dauka background edo atzealdea. Berak musika sortu zuen eta nik letra jarri nion. Horrela atera zen, aurrerantzean nork daki? ●

Kulturgintza antsietatearen garaian

“Etorkizuneko, barneko eta mugatu gabeko arrisku baten aurreko segurtasunik eza” gisa definitzen du hiztegiak “antsietate” hitza. Konfinamenduak agerian utzi dituen gauzen artean, sentsazio horrek gaur egungo gizartea artikulatzeko daukan ahalmena dago. Eta kulturgintza ere ez dago bizitzeko modu angustiarri horretatik aparte.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  PICKPIK

Antsietate handiegiz bizi gara denok da testuaren izenburua eta Kontzientzia Prekarioaren Institutua izeneko talde batek sinatzen du. 2014. urtean argitaratu zen lehenbiziko aldiz *Plan C* webgunean (<https://labur.eus/tE5Le>), baina sei urte pasa diren arren, koronabirusari aurre egiteko agindu duten etxealdiaren ondorioz, kasik idatzi zenean baino gaurkotasun handiagoa dauka une honetan.

Kapitalismoaren fase bakoitzak afektu nagusi baten inguruan funtzionatzen duela esplikatzen du talde horrek; eta afektu nagusi hori “sekretu publiko” bat dela, hura formulatzen denean bakarrik has daitezkeela herritarrak menperakuntzatik askatzen. XIX. mendean “miseria” izan zen, alegia, aurrerapen tekniko eta industrialek aberastasuna sortzen zutela zioen narratiba ofizialaren azpian ezkutatzen zen milaka pertsonaren gosea; behin formulatuta –garai hartako nobela entzutetsuenetako bat, hain zuzen, Victor Hugoren *Miserableak* da–, dominazio-afektu hori borrokatzeko ateak ireki ziren, hamarkadak iraun zituen iraultzen maratoi bati hasiera emanez.

Hurrengo geltokia, Kontzientzia Prekarioaren Institutuaren arabera, II. Mundu Gerra osteko kapitalismoa da, ekoizpen eredu fordistarekin eta honen eskutik datorren afektu nagusiarekin: asperdura. Beharbada 1960ko hamarkadako situazionistak izan ziren horri erantzunik borobilena eman ziotenak, adierazi zutenean ez zutela nahi mundu bat zeinean gosez ez hiltzeko garantia bakarra erabat aspertuta hiltzea zen. Kontrakultura, sexu askapena edo aurreko hamarkadekin konparatuta hain zurrinak ez diren antolatze forma politikoak izan daitezke fase honetako afektu nagusiaren kontra asmatutako irtenbideak.

Baina, testuaren egileen arabera, erantzun horiek agortuta daude jada, gaur egungo kapitalismoan beste afektu bat nagusitu baita: antsietatea. Bizitzen prekarizazio masiboak, segurtasun ekonomikorik ezak, isolamendu sozialak eta etengabeko bitartekaritza teknologikoan ardaztutako sozializatzeko modu berriek ezinegon konstantean bizi den gizartea sortu dute. Kontzientzia Prekarioaren Institutuak zioen –eta gauzak ez dira asko aldatu– afektu zapaltzaile hori ez dagoela oraindik problematizatuta; eta beraz, tresna zaharrekin ari garela arazo berriei aurre egin nahian.

Kulturan ere hori gertatzen dela esateko arrazoiak ez dira falta: miseriaren problema bukatu zen –kultura gaur egun herritar guztientzat da irisgarria–; eta asperdura ere desagertu da, paroxismoaraino ugaritu diren entretenimendu-aukerekin. Antsietatea, ordea, bere potentzia guztiarekin ari da funtzio-

natzen, konfinamendua hasi bezain pronto ikusi den moduan: mota guztietako sortzaileak presatu dira egoeraren aurrean zerbait ekoiztera, lehenago ere itogarria zen dinamika bat, eten-gabe agertu eta zeresana eman beharra, are gehiago indartuz. Gainera, bestelako lan kulturalik ez dagoen bitartean etxealdian egiten diren gehienak doan egin behar direla dirudienez –*streaming* kontzertuak edo solasaldiak, adibidez– prekarietatearen gorpila are gehiago elikatzen dute eta, ondorioz, antsietatearen txorrota toperaino irekita dago une honetan.

Baina gurpil zoro hori gelditu dezaketen praktika kulturalen premia ere, geroz eta begi-bistakoa bihurtu da. Hemen eta orain, askatzailea izan nahi duen kultura-eredu batek antsietatearen auziari aurre egin behar dio. Eta hori egiteko, irisgarritasunaren eta batez ere entretenimenduaren paradigmatik abiatzen ziren formulak gainditu behar ditu. Euskal kulturak ere hor bila deza-ke, agian, kamustuta daukan puntarentzat zorroztarria. ●



Neolitoa, pandemien pagotxa




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Gökhem (Suedia), duela 4.900 urte. Frälsegården korridorean 20 urteko emakume gazte bat hil zen izurriak jota. 2018an Göteborgeko unibertsitateko ikerlari talde batek jakinarazi zuen emakume haren hortzetako DNA aztertu zutela eta bertan *Yersinia pestis* bakterioaren andui bat topatu zutela, gizakiengan izurri pneumonikoa eragiten duten aldagai genetiko berberak zituen anduia. Neska hura hil zuen anduia mende batzuk lehenago, duela 5.700 urte inguru, Cucuteni-Tripilia kulturaren sortu zela ere ondorioztatu zuten, Itsaso Beltzaren iparraldean, egungo Moldavia, Errumania eta Ukraina inguruetan. Ordurarte uste zen izurria Asian sortu zela eta mendebalderantz egin zuela bidea, baina azterketa genetikoaren arabera, erdigunean sortu eta alde banatara, Asiaraino zein Europara hedatu zen.

Baina hortz horietan aurkitutakoa bereziki garrantzitsua da gizakiaren historiako lehen pandemiaren froga genetikorik zaharrena delako. Erdi Aroan izurri beltzarekin gertatukoaren antzera, Neolitoaren amaieran, Eurasiako populazioak nabarmen egin zuen behera, %30 eta %60 artean. Hiri eta herrixka asko erre eta abandonatu zituzten, eta hortxe amaitu zen Harri Aroa.

Litekeena da hura ez izatea lehen pandemia eta etorkizunean pandemia zaharrago baten arrastoak aurkitzea? Adituek ezetz uste dute, izurri haren arrazoia Neolitoa bera izan zelako, garai hartan gerta-



SUEDIAN AURKITUTAKO 5.000 URTE INGURUKO ESKELETOA, GIZA PANDEMIEN FROGARIK ZAHARRENA.

tutako aldaketak gaixotasunentzat haztegi ezin hobeia izan zirelako.

Nekazaritzak ordurarte nomadak izan ziren komunitateak sedentarizatzea ekarri zuen; ez zuten batetik bestera ibili beharrik elikagai bila. Bizimodu sedentarioan ugalketa errazagoa da eta populazioa asko hazi zen. Populazio hori gune jakinetan kontzentratzen ari zenez, dentsitateak ere nabarmen egin zuen gora eta, jende metaketa oso aproposa da gaixotasunak kutsatzeko. Gizakiek kontsumitzeko nahiz abereak eta laboreak hazteko ura ezinbestekoa zenez, urguneen inguruko kokalekuak aukeratu ohi zituzten; urguneean intsektuak pilatzen dira eta gaixotasunen kutsatzaile bikainak dira. Eta jakina, abeltzaintzak ere izan zuen eraginik; gizakiak eta etxekotutako animaliak elkarrekin bizitzeak zoono-

sia bultzatu zuen, hau da gaixotasunak gizakien eta beste animalia espezie batzuen artean kutsatzea. Animalia horiek gainera ez ziren beti etxean geratzen. Gorpila eta, ondoren, gurdia asmatuta, produktuez gain, gaitzak ere garraiatzen hasi ziren. Garai hartan ez zen giza migrazio mugimendu handirik izan, baina merkataritzaren hastapenak bete zuen transmisio lana.

Eta gizakiez gain, patogenoek beraiek ere eboluzionatu zuten nekazal komunitateetan eraginkorrako, kutsakorrago izateko. Jendarte nomadetan birusak, bakterioak edo onddoak ezin zuten hain birulentoak izan, ezin zuten ostalaria uzteko arriskua hartu; auskalo noiz topatuko zuten beste giza gorputz egoki bat. Nekazal gizarte sedentarioetan, aldiz, bazuten non aukeratu. ●



Zazpi milioi dokumentu eskura

Artxibo historikoak ez dira publiko zabala bildu ohi duten guneak. Garrantzi handiko ondarea gordetzen duten guneetara bisitariak erakartzeko asmoz, eta konfinamenduaren aitzakia baliogabetuz, 40 artxibo dituen Xarxa d'Arxius Comarcals de Catalunya erakundeak zazpi milioi dokumentu ipini ditu sarean, denen eskura. Twitterren, esaterako, #arxiusacasa traolak bisita anitzaz egiteko aukera ematen du.

Besteak beste, prentsa hemeroteka 1808. urtetik aurrera kontsulta daiteke. Alerik zaharrenak hamairu mende dauzka, 845. urtekoa da. Dokumentuen irudiaz eta edukia eskura izateaz gain, zenbait kasutan dokumentuak zaharberritzeko prozesua ere jarri dute ikusgai. Adibidez, 1313ko *Era Querimonia* (ezkerreko argazkian) Jaume II.a erregeak Vall d'Arani eman zizkion pribilegioak jasotzen dituenak. ●



LIBURUA

Natura ezagutzen



Pello Añorga



Jokin Mitxelena

HAZI TXIKI

TESTUA: PELLO AÑORGA

ILUSTRATZAILEA: JOKIN MITXELENA

BEGIKO, 2019 - 36 ORRI. HAURRENTZAT

XABIER ETXANIZ ERLE

Hazi baten istorioa kontatzen digute Pello Añorgak eta Jokin Mitxelenak liburu eder honetan. Biak dira kontalaria, batek hitza darabil, besteak irudia, baina bien arteko mezu horri esker ezagutuko dugu hazi baten garapena.

“Haizeak putz eta putz, Hazi Txiki hegaldatu egin zen airean barrena, paraxuta zabalik.” Esaldi horrekin ekiten diote kontakizunari, esaldia eta bi orriak betetzen dituen irudiarekin, belar artean lore bati helduta haizeak daraman protagonista txikia. Hazi Txikik gora egingo du, errepideak gurutzatu, mendiak pasa, errekek atzean utzi eta harkaitz handien artean hartuko du lur. Hazia da protagonista, baina pertsonifikatuta ageri zaigu, haur txiki baten itxura gehiago du hazi batena baino, eta alde horretatik hegaldatzen egin duen bidaiak abentura bat dirudi, edozein haurrek pozik bizi nahiko lukeen abentura.

Baina bidaiak hori ez da izan Hazi Txikiren abenturarik biziena, ez; Barbantxo bezala behi batek jango du gure protagonista eta haren sabelean... “A zer oihiak bota zituen Hazi Txikik, batez ere behiaren tripa barruan sartu eta hasi zenean bueltaka, jiraka-biraka!”; baina herri ipuin ezagunean bezala

Hazi Txikik “Zorionez, kanpora irtetea lortu zuen. Nola? Bada, ipurditik, behiak kaka egin zuenean”.

Hurrengo orrietan Hazi Txiki, eguzkiak lagunduta, aldaketak nabaritzen hasten da eta burutik irteten zaizkio urrezko ileak, “eguzkiaren izpien gisakoak”. Lore horietatik beste hazi batzuk zabalduko dira inguruetan haizeak bultzatuta eta kolore biziko ingurua bilakatuko harkaitzetako ingurua.

Añorgak eta Mitxelenak modu sinple eta poetikoa erabiliz ederki azaltzen dute naturako gertakari baten eboluzioa. Ipuin bat da, baita naturaren garapenaren adibide argia ere, baina bi kontu horien artean bat gailentzen da inolako zalan-tzarik gabe, kontakizunaren poetikotasuna, edertasunaren bila eginiko apustua.

Irakurtzen hasi berrientzako liburua da *Hazi Txiki* hau, baina oso aproposa da baita ere, dituen irudi handi eta lortuei esker, haur txikiei kontatzeko, erakusteko, bai altzoan bai talde txikian. Haurrek ederki gozatuko baitute Hazi Txikiren abenturekin, gertakari horiekin... eta, bide batez, natura ezagutzen. ●



MUSIKA

Penderecki: konpositore ezezagun bezain ezaguna

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Krzysztof Penderecki XX. mendearen bigarren erdian gertatu zen poloniar musikaren berpizkunde itzelaren zati izan zen, Gorecki eta Lutoslawski bezalako musikariek eman zigutena, Pendereckiz gain.

Horiek guztiek ekarpen handiak egin zizkioten musika garaikideari, eta, justiziaz, gure garaiko musikari garrantzitsuenetakotzat jotzen dira. Hori dela eta, Pendereckiren heriotzak, joan den martxoaren 29an, hainbat omenaldi ekarri ditu musikari ospetsuen eskutik. Eta omenaldi horietako askotan azken hamarkadetako handienetako gisa izendatu dute Penderecki.

Bere lanak bertute bikain bat zuen, beste askoren artean: berea hizkuntza garaikidea izan arren, inoiz ez zuela muturrera eramane eta ezein joeratan parte hartzeari uko egin ziola. Horrexegatik bere musika sailkatzea zaila da benetan.

Egia esan, Pendereckiren lana oso adierazkorra eta berezia da. Alde batetik, bere lanaren zati handi batek izaera erlijio-soa du. Konpositore moderno gutxietako bat da –Arvo Part-ekin batera–, fedearen adierazpena bere sorkuntzen gaitzat duena. Baina, kontrastean, lan horien ondoan, beste mota bateko lanak idazten jakin zuen, *Loudun-en deabruak* izeneko opera erotikoa bezala, pixkanaka-pixkanaka erreperitorio lirikoan sartzen ari dena.

Beharbada, bere konposiziorik eza-gunena *Hiroshimako biktimen aldeko Trenodia* da, errukia sakoneraino transmititzen duen lan bat, baina baita lehen bonba atomikoaren heriotza horiengatik amorrua ere.

Hala ere, gure irakurle batzuek pentsatuko dute ez dutela egile handi honen



musika ezagutzen. Oker daude. *Exorzista* (1973) eta *Distira* (*The shining*, 1980) filmen unerik zirraragarrienak Penderecki handiaren musikak azpimarratzen ditu. Une horietako bakar bat ere ez litzateke berdina izango poloniarraren musikaren sakontasun eta adierazkortasunik gabe. Ikus itzazue berriro film

hauek eta gozatu haien soinu-banda zoragarriez.

Bere heriotzarekin, Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zen konpositore belaunaldi handia desagertu egin da, eta ez dago oso argi horien ordezkorik dagoenik. Horregatik Pendereckiren heriotza bi aldiz penagarria da. Goian bego. ●



Zentzumen sentsudunak

📖 MARTA SENDIU 📺 TOBACCO DAYS

Berehalako geroa erabat ezezaguna eta hurbileko iragana guztiz pentsaezina den honetan, bizi dugun errealtate dardartian arrakalei eusten dioten bi mundu ezberdin ditugu gaurkoan: liburuak eta lurrinak. Gizakion zentzumenek bizitasunez beteta esnatzen jarraitzen dute mugapenez inguratutako egun luze hauetan. Hori dela eta, usaimena eta ikusmena denbora tarte batez asetzeko asmoz egin dute Ines Garciak eta Maddalen Marzolek Instagrameko zuzenekoak.

Tobaccos Days liburu-dendako eta Hunky Dory Laboratory lurrindegiko bi literatur zale hauek 10 liburu aukeratu eta bakoitzari lurrin bana egokitu diote. Mimo handiz hautatutako eskaintza literario zabalean murgilduko gaituzte saiakerak, entseguak, konstelazioei buruzko istorioak, misteriozko pasarteak, eleberri psikologikoak eta askotariko lurringaiak azalduz.

Lehen liburua Leila Gurriero kazetari eta idazle argentinarra idatzitako *Teoría de la gravedad* bilduma da. Garcia eta Marzolen ustez, gardentasunean igeri egiteko beta ematen du, eguneroko errealtatea erakutsi eta gure barnean ezkutatutakoei argia ematen die. Liburuan sarri aipatzen da jasmin usaina eta

horregatik, *Viadeimille* etxeko *Gelsomino* lurrina jarri diote.

Usain eta irudimen munduan barneratuz, *La interprete del dolor* (Jhumpa Lahiri) AEBetan bizi diren Indiako etorkin familien gizartea irudikatzen duen liburua dugu hurrengoa. Haien kultura oinordetza nola bizi duten azaltzen da, eta kasu honetan, D.S & Durga etxeko *Radio Bombay* perfumea jarri diote.

Hirugarrenik, Garciak eta Marzolek oso gustuko duten Siri Hustvedten *La mujer que mira a los hombres que miran a las mujeres* feminismoaren, artearen eta zientziaren inguruko entseguak gomendatu dituzte. Oraingoan, Pierre Guillaume etxeko *Ilang Ivohibe* usaina aukeratu dute, baina idazlearentzat hautatua, ez liburuarentzat.

Gero, Irene Solá idazle katalanaren *Canto yo y la montaña baila* maitagarrien ipuina erakutsi dute. Kolore anitzetako eta baso hostotsuetako mundu berezi eta misteriotsu horri *Spiritus* izeneko in-tsentsu ukitua duen jaboi berde usaina egokitu diote.

Fikzioarekin jarraituz, *Ghost World* (Daniel Clowes) mamuei buruzko ipuina aipatu dute. Paristar batek Los Angeles hiria nola ikusten duen azaltzen duen liburu honi, *Paris L.A.* izeneko azukre

usaina duen lurrina egokitu diote. Goxoki usain horrekin batera, *Ozeko Aztia* ekarri digute gogora, eta *1873 Collete* lurringaiak jarri diote.

Misteriozko istorio batekin jarraituz, Patricia Highsmithen *Extraños en un tren* liburuan bi lagunek burututako hilketak da nagusi. Iluntasuna, misterioa eta beldurra kontatzeko *Nerotic* lurringaiak aukeratu dute.

Marguerite Durasen *El amante* eleberri autobiografikoan, aldiz, kolonizatutako Indotxinan bizi den frantziar jatorriko nerabe baten istorioa kontatzen zaigu. Haren familiaren egoera ekonomikoak lurra jo eta gero, mutil dirudun batekin duen harremana kontatzen digu. Lurraldearen izena aitzakiatzat hartuz, *Indochine* perfumea jarri diote Durasen kontakizun honi.

Ordubeteko zuzeneko honi amaiera emateko, bi hizlariak amankomunean duten astronomiako *El atlas de las constelaciones* liburua aipatu dute. Gau beltzean dirdira egiten duten puntu zurien inguruko hainbat istorio azaltzen ditu, gaueko zerua margotzen duten 88 konstelazioena, hain zuzen ere. *Experimentum Crucis* lurrina jarri diote azkenengo liburu ilustratu honi, entzuleak usain eta letren munduko ametsera erakarritz. ●



Hitz gezidunak

TXARKI, GAIZKI ADOS	↓	ERRUKITSU ZAKUR	↓	HAUR HIZKE- RAN, TXAKUR		SASITZA GANIBET TOLESGARRIA	↓	OREA EGITEKO ASKA NAFARROAKO UDALERRIA	↓	ALABAINA, IZAN ERE UNEREN BATEAN	↓
↓		↓				↓		↓		↓	
SUSTRAI EZ EME	→					PERTO- NAIAREN IZENA MILA KILO	→				
↓		ALDE!, OSPAI!	→		ELIKATU AZTERTU	↓	DEUS ERE EZ ZERBAIT ONURAGA- RRIA IZAN	↓			
TZULINGURU BIRIKA	→	↓			↓			GATZ GEHIEGI DUENA MODURA	→		
↓				INOLAKO LABAIN, IRRISTAKOR	→			↓		BERKE- LIOAREN IKURRA OHITU	→
GEHITZE	JOKAMOLDEA PERTSO- NAIAREN ABIZENA	→			LAZTANA, KUTTUNA ZEREALA	→					ARKUME JAI O BERRIA
↓	↓				↓		EBAKI SAKONA 60 MINUTU	→			↓
URREAREN IKURRA UR ASKO DUENA	→		MENDIXKA SALDU ADITZAREN INFINITIBOA	→			↓		BAI ZERA! GAROA, IRATZEA	→	
↓			↓		TXIRRINAREN HOTSA EUSKAL FONEMA	→			↓		URANIOAREN IKURRA ZEREZ ATZIZKIA
NEURTU ZERBAITEN ANALISIA EGIN	→				↓		IKARAZ, DARDARAZ TONA	→			↓
↓								ARAZO, GA- TAKZA	→		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

7				2	6	1		
			7			6		3
	9						7	
	3	6		1	8	9		
		9	2	6		3	8	
	5						1	
1		7			9			
		2	4	3				6

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Izan ezik
2. Beharbada
3. Aske
4. Sakona
5. Denbora bitarte aski laburrak

EBAZPENAK

1. SALKU
2. AGIAN
3. LIBRE
4. BARNA
5. UNEAK

6	5	7	7	4	3	4	2	7	8	6
2	2	1	6	5	6	9	4	3	1	2
3	5	4	8	7	2	7	7	8	6	1
4	1	1	8	3	7	3	8	3	5	1
5	1	6	2	2	6	7	6	8	2	5
2	7	8	9	4	3	5	6	1	4	3
4	3	6	5	1	8	6	9	3	2	7
8	2	1	7	9	5	6	4	3	7	8
7	4	5	3	2	6	1	9	8	1	5

I	Z	U	V	U	T	V	Z	I	T	V	N	V
R	R	D	R	D	U	T	R	T	V	Z	I	Z
U	R	I	N	I	R	I	T	S	T	Z	U	U
X	T	A	V	O	N	U	U	M		U	V	
A	I	A	S	E	Z	I	R	V	G	A	U	
V	E	T	I	V	M	A	T	O	R			
K	B	O	G	N	O	N	I	I	R	I	B	
I	Z	A	G	O	K	A	M	O	K	A	K	
T	I	R	R	I	T	I		T	U		R	A
V	O	I	V	S				O	R	R	E	
V	N	V	B	V	T			T	K	O	R	V
H		M	S					E		O		

Inés Dunis Aldave

BIKTIMOLOGIA IKERTZAILEA

BIKTIMOLOGIA GIZARATERATZEN

Informatika arloan lan egiten du, datuen tratamenduan. Datuetatik harago joateko, pertsonen historiak eza-gutzeko eta ulertzeko balio izan dio ikerketa-lanak. Izan ere, "biktima bakoitzak indibiduo bat da, bere mina, bere erreakzioak eta bere sentimenduak ditu. Ez dugu inoiz jakintzat eman behar nola jokatu behar duen ekin-tza beldurgarri bat bizi izan duenak". Biziki interesgarria litzatekeela dio biktimologiaren ideia gizarteratzea, eta era guztietako biktimak eta delituak ikertzea, "estigmatizatu ez ditzagun, beldurrik izan ez dezaten, deserosoak direla senti ez dezaten eta uler dezagun guztioi gerta dakigukeela, edo-zein deliturengatik".

"Hartzen dugun bidea hartuta ere, minez bizitzen jarraituko dutenak biktimak dira"

Inés Duvis Aldavek kriminologia ikasi zuen eta ondoren "Esperientzia traumatikoetako biktimekin lan egitea" gradu ondokoa EHUUn. Horri esker, 2018-2019 Antonio Beristain saria irabazi zuen *Terrorismoaren biktimen ahotsak entzuten* lanarekin. "Badirudi biktimek ez dutela interesik eragiten, eta egiten diren ikerketa –eta literatura– lanak delituan eta biktimarioan fokatzen dira, ez biktimetan". Terrorismoaren gaiari eman zion biktimologiaren perspektiba, horixe azpimarratu zuen epai-mahaiak.

 **MARIJO DEOGRACIAS HORRILLO**  **EHU**

Zerk eraman zintuen esperientzia traumatikoen biktimen inguruko EHUn gradu-ondokoa egitera?

Kriminologia gradua diziplina anitzekoa da; nik genero indarkeria aukeratu nuen, biktimen ikuspegitik, praktikak eta gradu amaierako lana egiteko. Ohartu nintzen biktimak batzuei traba egiten dietela, ohar-kabea pasatzen direla edo auzitan jartzen direla, biktimarioak baino gehiago. Gradu-ondokoa, berriz, era guztietako biktimez jardun ginen, baina terrorismoaren biktimak aukeratu nituen, biktimologiaren ikuspegitik lantzeko.

Indarkeria politikoaz ere ari zara lanean.

Gesto por la Paz mugimenduak 90eko hamarkadan zioen indarkeria politikoa zela Euskal Herrian motibazio politiko zehatzekin egindako indarkeria. Gustuko dut definizio hori. Hortik aurrera indarkeria politikoaren biktimak definitzera pasatzen gara: ETaren indarkeriarenak, GALenak eta antzeko ezaugarriak

dituzten bestelako talde antiterrorista baita talde parapolizialenak, non zuzeneko indarkeria jasotako pertsonen gainera, euren senideak, mehatxatuak, estortsiatuak edo bahituak gehitu behar diren. Definizio horretan kale indarkeriaren biktimak ere sartzen dira, baita segurtasun indarren gehiegikeriaren biktimak ere.

Sariketa-diskurtsoan ETaren indarkeria amaituta sortuko zen eszenatokiak eta bizikidetzak moldeaz galdetu zenuen.

Beti errepikatzen den akatsa du galderak; alegia, bizi izan dugun indarkeria terrorista ETaren aldetik bakarrik datorrela ulertzea. Herri honetan talde terrorista asko egon dira; beraz, ETak eragindakoak baino biktima gehiago daude. Hori onartzea aurrerapauso handia litzateke; hartzen dugun bidea hartzen dugula ere, minez bizitzen jarraituko dutenak biktimak direlako. Ezin dugu ezikusiarenak egin inongo biktimaren aurrean. Beraz, lehen-

dabizi oso garrantzitsua da den-denak aitortzea. Bigarrenenez, ezinbestekoa da aintzat hartzea banan-banan, ez kolektiboki. Eta hirugarrenenez, beharrezkoa da helburu politikoekin erabiltzeari uztea, eta bizikidetzan egingo diren urratsak haiekin egitea.

Biktimen testigantzetatik zerbaitek harritu zaitu?

Bai karreran, bai gradu-ondokoa, esan izan digute biktimek ez dutela mende-kua bilatzen, aurrera egin nahi dutela. Horretan lagungarria litzateke euren biktimarioek onartzea biktimizatu egin zituztela, eta barkamena eskatzea. Entzuten dituzun arte ez zara horren kontziente. Gehienek mina gainditzeko duten gaitasun erraldoi horretaz ohartzea biziraupenaren eta giza handitasunaren ikasbidea da.

Indarkeria bizi izan duen pertsona bakoitza bat eta bakarra da, ez kolektibo bat. Hala ere, kolektibizatu egin dira, interes politikoekin erabili.

Horixe zen nire lanaren helburua; horregatik izenburua. Emakume eta gizon bakoitzak beharrezko duelako besteen laguntza, aldarrikatzeko, hitz egiteko. Bakarrak zaila izaten du entzunaraztea; normala da elkartzea. Normala ez dena da taldekatu direlako dagokien indibidualtasunaren kontzientzia galtzea. Antzeko egoerak bizi badituzte ere, ez dira berdinak. Ez diote modu berean aurre egiten, jasaten dituzten ondorioak ez dira berdinak; eta diozun bezala, erabiliak izan dira, erruki barik. Terrorismoaren biktima izateko hautatu zituztenean ere erabiliak izan ziren. Euren bitartez gizartea beldurtu nahi izan zen. Inork ez dauka eskubiderik behin eta berriz biktimak erabiltzeko. Duintasuna zor zaie, ez bakarrik biktimizatu dituenaren aldetik, baita erakundeen eta gizartearen aldetik ere. Biktima guztiek behar dute hori, bereizketarik gabe.

Lekukotzek zertan balio diezagukete gizarte gisa?

Agian galdera beste bat da. Agian biktimei balio die gizarteak euren historiak ezagutzea; zor diegu. Terrorismoaren biktimak petxeroak dira; era guztietako terrorismoarenak. Zigor izugarria egokitu zaie gainerako herritarrak izutzeko. Hurrengoak izateko beldurrez, bai, bai,



INÉS DUVIS ALDAVE,
EZKERREAN; "EX AEQUO"
IRABAZI ZUEN IX. ANTONIO
BERISTAIN IKERKETA
BIKTIMOLOGIKOKO SARIA,
IAZKO AZAROAN.

na lasai antzera bizi izan gara eta eurak dira gizarte osoari zuzendutako indarkeria jasaten dutenak. Egin dezakegun gutxienezkoa da proaktiboki entzutea.

ETak indarkeria utzi zuenetik aldatu da ETaren biktimekiko gizartearen pertzepzioa?

Beti joan da aldatzen. Hasieran "zerbait egingo zuen" esan eta bizkarra ematen zitzairen, beldurratik edo ideologiatik. Ahotsa altxatu zutenean enpatikoagoa izan zen gizartea. ETak erailketak laga zituenetik, biktimez "gogaitu"

gara. Erosoagoa da gertatu zena oroitu gabe bizitzea, biktimak ahaztuta. Gazte askok ez dakite ezer orain 50 urte herri honetan egon zen minaz. Terrorismoaren biktimen inguruko albistiren bat entzuten dutenean fikzioa iruditzen zaie. Denbora pasatzen uzten ari gara eta hori ez da ona ez biktimentzat, ezta gizartearentzat. "Oroitzen ez baduzu, gertatu ez zen seinale", ez du balio. Gertatu zen eta berriro gerta daiteke. Biktima guztiek dute ukatzen zaien aitortza, duintasuna, erreparazioa eta memoria eskubidea. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS



Haurrak kalera ateratzea lortu ondoren, ez daitezela berriz etxera itzuli eskatuko dute orain haien gurasoek

Azken hilabeteen jasan duten esan ezinezko sufrimenduaren ondoren, haurrak abandonatzeko eskubidearen alde agertu da hamar gurasotatik zazpi. ●

Amazon bidez liburu bat eskatu duten Millenniallek galdetu dute ea nola kargatzen den traste hori

UEUk kurtso berezi bat prestatu du gazte horientzat, paperezko orrialdeetan ezkerretik eskuinera scroll egiten dela ikas dezaten. ●



Konfinamendua hasi zenetik, etxean Yoga egitea bihurtu da bigarren heriotza kausa nagusia Euskal Herrian

Sasoian mantentzen lagunduko zielakoan, ezinezko kontortsioak egiten hasi diren euskaldunak masiboki ospitaleratu behar izan dituzte. ●

OASIKO
Kronikak

▶

UMORE KONFINATUA
Entzun podcasta astean behin

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**



www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus